

# ataria

**Fernando Rojoren  
bizitzako pasioak**

2019-06-14  
1.075. zenbakia  
107.6 fm ·  
[www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

**Hemen zure  
iragarkia joan  
daiteke**

publi@ataria.eus

661 678 818

**AVIA** ARRIARAN

1949-tik kalitatezko zerbitzu/produktuak eskeintzen.

- Erregaiak
- Garbiketa profesionalak
- Denda on-line [www.arriaran.com](http://www.arriaran.com)


**ONDO PASA SANJOANAK!!!**

Larramendi 28 Tolosa / Tel: 943 67 49 82 /  
[info@arriaran.com](mailto:info@arriaran.com) / [www.arriaran.com](http://www.arriaran.com)



**NAIIRA**  
estetika zentroa

943 650 448 - 676 285 761  
SAN FRANCISCO  
PASEALEKUA, 35 • TOLOSA



**ISASTEGI**

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)  
TEL: 943 65 29 64 [WWW.ISASTEGI.COM](http://WWW.ISASTEGI.COM)





# Ehundegian

**A**rmairu mudantzen atarian, madarikazioka naukazue. Behar baino arropa gehiago erosteagatik, orain komeriak. Zer atera, zer gorde. Non eta nola. Urtaro berri bakoitzarekin batera egiten dut arropa berririk ez erosteko agintzari prekario bat. Eta urtero hausten dut hitzarmena, erositako jantzia birziklatutakoa, ekologikoa, iraunkorra edota alhaduren kontrakoa bada ere. Laburbilduz, aurka egiteko ahalegin aktiboetan arituta ere, modaren marketin kanpainak izan ohi direla tirabira honen garaile. Eta, badirudi, hau dela jantzigelen partidaren emaitzarik zabalduena: ehungintza 1 - gizartea 0.

Izan ere, moda ekoizle handien produktzio ereduak goranzko joera izatea aurreikusten da. Greenpeacen *Detox* proiektuaren arabera, 2030 urtera bitarte, ehunen ekoizpena %63 areagotzea aurreikusten da. Badirudi, negozioa haizea alde duela dabilela. Baina, izugarritzko negozio honen atzean, ingurumen-arazo benetan izugarria ezkututzen da. Moda, sektore kutsagarrien zerrandan, bigarren postuan sailkatu da berriki: kontsumitzen den arropa kopuru handiagatik, hau sortzeko erabiltzen diren materialengatik, zokoratzen diren arropa-soberakinengatik, produktioaren zentralizazio geografikoaren ondorioz, produktua bidaltzeko behar den garraioagatik... Adibidez, merkatal zentro batean erositako bakero-pare bat sortzeko, 1.200 ur litro kontsumitu, 32 kg CO2 igorri eta 10kg gai kimiko erabiltzen dira. Eta, urtero, 1.000 milioi unitate inguru ekoizten

**Negozio honen atzean, ingurumen arazo benetan izugarria ezkututzen da (...). Moda, sektore kutsagarrien zerrandan, bigarren postuan sailkatu da berriki**

dira, pentsa... Modaren kontu arraio honek esku artetik ihes egin digu.

Denaren eta ez denaren inguruko datu hauen aurrean zuhurtziaz jantzi behar gara, eta buruketak banan-banan ebatzi. Lehenik eta behin kontsumoa murriztu behar dugula argi dago: *fast fashion* delakoaren bultzadei, planto! Eskaria murriztu, eskaintza gutxitu dezaten. Erabili eta botatzeko arropari uko egin behar diogu: zaharkitze programatua duen eta saldu ez ezean etorburura itzuliko denari, sunsittua izateko. Bestalde, ehungaien sorreran egiten diren joan-etorriak murrizteko, garrantzitsua da bertako edo gertuko produktak erostea. Herriko dendetan, ekoizle txiki, artisauei, posible bada. Garraio pila behar da ehungintzan: lehengaiak lantegietara garraiatu behar dira, landu ostean bigarren lantegi batera garraiatu eta abar. Zenbat eta distantzia handiago ibili, orduan eta CO2



**OLATZ GODOY**  
KALE KANTOITIK  
107.6 FM

gehiago igorriko da atmosferara. Gobernu kanpoko erakunde anitzen arabera, berotegi-efektuan eragina duten munduko gasen %8 ehungintzaren eta haren produktuen garraioarekin lotuta daude. Horrez gain, materialei erreparatzea komeni da. Poliesterra sailhestu beharko genuke, esaterako, mikroplastikoz osatuta baitago. Horiek askatzen doaz, arropa garbitzean edota erabilera soilarekin. Gure ibai eta itsasoetan amaituz, dibertsitateari eta gure osasunari mehatxu eginez. Baita biskosa merkea ere, horren kostua murrizteko, oso metodo kutsagarrien bidez lantzen baitute. Azkenik, arropa birziklatzeko eta berrerabiltzeko ohitura bermatu beharko genukeela esango nuke. Bide batez, bi mandatu edo gehiago egingo baikenituzke.

Ufa! Efektu terapeutikoa izan du, benetan, hau guztia botatzek. Honakoa izango al da modako erosketen aurkako nire behin betiko ituna? Itun, asmo zein xedea bada ere, txip aldaketa baten ondorioa izan dela sentitzen dut. Ea, biribilitzeko, kezka honen kilika sentiarazten dizuedan.

**ARGITARATZAILEA:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez  
**KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus  
**POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:**



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

**TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:**

**Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Aitzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:  
**Eneritz Maiz Etxarri**



## Alzheimerra nola zaindu jakiteko aukera

Zaintzaileentzako bi tailer antolatu ditu Buru Bihotzez Elkartek; ekainaren 27an eta uztailaren 4an izango dira

### Asier Imaz

**A**lzheimer gaixotasuna zahartzaroan sortzen den gaixotasun neurodegeneratiboa da. Kalte intelektual sakona eragiten du, eta munduan ia 30 milioi pertsona kaltetzen ditu. Eskualdean, gaitz hori edo beste demenzia bat duen pertsona baten egunerokotasunean gertatzen diren egoera zailenak kudeatzeko, eta bere zaintza pertsonalari arreta jarri nahi dion zaintzaileei zuzendutako egitasmoa jarriko dute martxan. Antolatzaile lanetan Buru Bihotzez Elkartea ari da, beti ere, Tolosako Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastola eta Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuaren laguntzarekin. Tailerrak doakoak dira, eta, zaintzaileen ordu-tegi arazoak ekiditeko, gaixoarekin joateko aukera izango da, zaintza zerbitzua jarriko baitute saioak irauten duen bitartean.

Lehen tailerra ekainaren 27an izango da, Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastolan; 16:00etatik 19:00etara bitarteko saioa izango da. Alzheimer gaixotasunaz eta beste demenziez, elkarren arteko berdintasunez eta des-

berdintasunez, galdera bera behin eta berriz egiteaz, agresibitateaz, loaren asalduraz, ezinegonaz eta noraezean ibiltzeaz ariko dira. Gainera, jokaera hauen guztien kudeaketarako estrategiak ere landuko dituzte. Formatzaileak Igone Etxeberria EHU-ko Psikologia Doktorea, Jose Manuel Martinez Buru Bihotzez Elkarteko kidea eta medikua eta Maria Erdozain elkarteko psikologa izango dira.

Bigarren tailerra uztailaren 4an izango da, lehen saioko leku eta ordu-tegi berean. Bertan, Alzheimer gaixotasuna duen pertsona baten eta bere testuinguruaren egunerokotasuna erraztea posible dela azalduko dute. Jorratuko dituzten gaiak honakoak izango dira: demenzia duen pertsonarekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko gakoak; demenzia duen pertsonaren eguneroko zaintzan autonomia nola sustatu (higienea, janzteia, elikadura...), eta egunerokotasunean autonomia sustatzeko edo zaintzarako erabiltzen diren esku-hartzeak. Gainera, lehen saioko hiru aditu berak mantenduko dituzte bigarren saioan ere.

Bi tailer horietan parte hartzeko hainbat aukera daude. Batetik, Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolan eman daiteke izena. Bestela, informazio gehiago jasotzeko interesa duenak, 943 67 36 29 telefono zenbakira dei dezake.

## Enpresa kudeaketa ikastaroa, ekintzaileentzat

Datorren astean izango da, Lehiberrin; plaza mugatuak izango dira, baina langabetuek izango dute lehentasuna.

### J. Artutxa

**T**olosaldea Garatzenen helburu nagusietako bat, lanpostu berriak sortzeko aukera sustatzen den bitartean, eskualdean enpresa egitasmo berriak sortzea izan da betidanik. Horrela, ekintzailetza sustatu asmoz eta izpiritu hori bultzatu asmoz, enpresa egitasmo berri bat sortu nahi duten ekintzaileei zuzenduriko enpresa kudeaketa ikastaroa antolatu du.

Tolosaldeko ekintzaile berriei zuzenduriko prestakuntza saioak izango dira, eta langabetuek izango dute lehentasuna. Hala ere, plaza mugatuak izango dira: 12 lagunentzako izango da tokia. Pertsona horiek negozio plan bat burutzeko gaitasun teknikoetan trebatu ahal izango dute.

### 20 orduko saio teorikoa

Ikastaroa ekainaren 17an, astelehena, hasiko da eta, datorren ostiralean, hilak 21, amaitu. Bost egunetan, lau orduko saioak izango dira, goizez (09:30-13:30), Tolosako Apatta Industrialdeko Lehiberri zentroan.

Astelehenean, hastapen saioa egingo dute, ekintzailetza negozio planei buruzkoa. Asteartean, negozioaren kudeaketa eta kontrol ekonomikoa erreminten inguruan ariko dira. Asteazkenean, berriz, egitura juridikoaren inguruko saioa izango da. Ostegunean, alderdi administratiboari, negozioaren abiarazteari eta Gizarte Segurantzako kotizazioari buruzkoa izango da. Azkenik, ostiralean, behar fiskalez eta zergez ariko dira.

Kudeaketa ikastaro horren inguruan argibide gehiago izateko interesa dutenak, Tolosaldea Garatzeneko Ekintzailetza Sailera zuzendu daitezke, 943 65 45 01 telefono zenbakira deituz edota [zubeldia@tolosaldea.eus](mailto:zubeldia@tolosaldea.eus) helbide elektronikora mezua idatziz.

# Usabal kiroldegia, udako kanpainari ekiteko prest

Udako ikastaroetan izena emateko aukera dago oraindik; bestalde, bihar irekiko dituzte kanpokoko igerilekuak

## J. Artutxa

**E**gunak gauak baino luzeagoak izaten hasten direnean, ohikoa da eguzkiaren presentzia nabariagoa izatea. Hori dela eta, ekainean sartzearekin batera, giro sargoria nagusitzen da eta, horren aurrean, gorputza freskatzeko hautua egiten dute askok. Bide horretan, beste urte batez, udako kanpainari emango dio txanda Usabal kiroldegia. Hilaren 25etik aurrera, ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute haur nahiz helduek.

Guztira 30 ikastaro izango dira; 3 eta 16 urte bitarteko haurrentzako 16 jarduera ezberdin, eta 16 urtetik gorakorentzako, berriz, 14. Aurten, ekainaren 25etik 28ra bitarte, astebeteko txanda izango da eta, ondoren, uztailetik aurrera, hamabostaldikoak izango dira. Helduen ikastaroak, berriz, hilabeteak izango dira, astean bi saiorekin. Hala ere, Donostiako Aste Nagusia ospatu bitartean, hau da, abuztuaren 10etik 18ra bitarte (biak barne), itxita egongo da kiroldegia.

Honako jarduera hauek izango dira, besteak beste, kiroldegian egin ahal izango direnak: igeriketa, aquafitness, jumpfit, pilates, zumba, desafit, k-stretch, body pump edota cycling-a. Bestalde, Usabaldik kanpo bestelako kirol ekintzak praktikatzeko aukera

izango dute herritarrek. Ferialekuan hondartza bolei ikastaroak izango dira eta Berazubin, berriz, Kfit edo padela praktikatzeko aukera izango da.

Izen-ematea zabalik dago oraindik. Kiroldegian bertan, 943 53 64 00 telefono zenbakira deituz, kiroldegia Facebook orrialdearen bitartez edota [www.usabalkiroldegia.com](http://www.usabalkiroldegia.com) webgunean eman dezakete izena bazkideek. Bazkideak ez direnek, berriz, Usabalen eman dezakete izena, ordainketa eginez. Ikastaroen eskaintzaren eta ordutegiaren inguruko informazio guztia webgunean aurki daiteke.

## Aurten, itzalgune gehiago Usabaldigo igerilekuan

Aurtengo udari dagokionez, bihar zabalduko dituzte kanpokoko igerilekuak eta, horrekin batera, berdegunea ere. Irailaren 23ra bitarte egongo dira zabalik, 10:00etatik 21:00etara. Aurten, gainera, bada berrikuntza bat. Izan ere, eguzkitako gehiago jarri dituztenez, itzalgune gehiago izango dira igerilekuak inguratzen dituzten belazetan. Eguzkia gehiegi maite ez dutenak, beraz, lasaia egon daitezke.

Horrez guztiaz gain, eta erabiltzaileen mugikortasuna errazteko, bizikletak eta bestelako ibilgailuak aparkatzeko eremua egokitu dute. Kiroldegitik gogorarazi dute, dagoeneko goiko solarium gunean hamaka eta aulkiak eskuragarri daudela, eta uda amaitu bitarte eremua zabalik egongo dela, eguzkia hartzeko aprobetxatu nahi dutenentzat.

## Amarozko eskopetari konpainiaren bilera

**Tolosa.** Astelehenean, hilak 17, Amarotz auzoko eskopetari konpainiako kideen batzar irekia izango da, kultur etxean, 20:00etatik aurrera. San Joan egunean konpainian parte hartuko duten kideak bertaraztea eskatu dute. Egitarauaz eta aurretik egin beharreko prestaketa lanaz ariko dira.

## Igandean hasiko dira Iurreamendi egoitzako jaiak

**Tolosa.** Urtero bezala, Iurreamendi egoitzan festak ospatuko dituzte, sanjoanen aurretik. Igandean bazkari berezia egingo dute. Astelehenean, berriz, 10:30eko mezaren ondoren, suziria jaurtiko dute, 11:00etan. 11:30ean bingoa izango da eta, 16:30ean, jolasak.

## Gaur jarriko dituzte salgai zineziklo berriko bonoak

**Tolosa.** Gaur jarriko dira salgai zineziklo berriko bonoak, Leidorreko leihatilan, 17:00etatik 18:30era. Ziklo hau ekainaren 16tik uztailearen 22ra luzatuko da.

8 film ikusi ahal izango dira; tartean, *A la vuelta de la esquina*, *La viuda* eta *Casi imposible*.

## Isidro Larrañaga musika eskolako ikasleen saioa

**Tolosa.** Isidro Larrañaga musika eskolako ikasle taldeek kontzertua eskainiko dute, gaur. Karela tabernako terrazan izango da saioa, 19:30ean hasita.

 tolosaldeko  
ataria

 ataria  
irratia

 ataria  
internet

 ataria  
prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:  
661 67 88 18  
[publi@ataria.eus](mailto:publi@ataria.eus)



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



# KUKUA JAITSI BAINO LEHEN, ANOETAN JAI

Gaur gauean abiatuko dira festak; eraso matxistak salatzekeo iaz onartutako protokoloa indarrean egongo da jaietan, eta mugimendu feministak «aktiboki» parte hartuko du, erasoei erantzuteko dinamikan

Jon Miranda

**A**urten inoiz baino beranduago iritsi dira Anoetako festak. Korputz eguna ekainaren 20an ospatuko denez, ia sanjoanekin bat egingo dute jaiak. Ohi bezala, asteazkenean, ekainaren 19an, 19:00etan, suzuria botaz hasiko dituzte festak ofizialki, baina asteburu honetan izango dira lehenengo egitasmoak.

Gaur gauean, Abraham Olano kiroldegian, Anitz dantza taldeak eskainiko duen *Saketik, errebotera* emanaldiarekin abiatuko dira festak, eta bihar Kuadrillen eguna izango da. Igandean biribilduko dituzte lehen asteburuko ekitaldiak, hainbat jatorritako jakien dastaketarekin eta arratsaldeko bertso eta dantza saioekin.

## Jarrera irmoa, indarkeria matxistaren aurka

Festa gunean nahiz gunetik kanpo, festen barruan erasorik gertatzen bada, horren aurrean erantzun bateratu bat emateko protokoloa osatu zuten iaz Anoetan. Hautetsiek, herriko eragileek, tabernariak eta udal langileek parte hartu zuten protokoloaren osatzean, eta aurten ere dinamika berdinarekin jarraitzea erabaki dute.

Aurten, Martxoaren 8aren testuinguruan, herriko emakumeak biltzen eta saretzen hasi dira, eta parte hartze aktiboa izango dute, gaur bertan hasien diren festetan: besoko morea eramango dute eta edozein erasoren aurrean, erreferentzia puntua izango dira. Horrekin batera, eraso matxista-

rik ikusiz gero, jarraitu beharreko pausoen inguruko argibideak eman dituzte: «Erasotuari zure laguntza eskaini, leku lasai eta seguru batera joateko aukera eman, konfiantzazko norbaiti deitzeke aukera eskaini, ez utzi bakarririk, horrela nahi ez badu, ez behartu gertatutakoa kontatzea, ez epaitu erasotua, eta erasotzailea identifikatu eta festa gunetik kanporatu». Eraso matxistaren bat ikusiz gero, telefono bat ere jarri dute herritarren eskura: 688 61 21 00.

Amaitzeko, Anoetako emakumeek azaldu dute, ez dutela eraso matxistarik onartuko herriko festetan. «Azpimarratu nahi dugu guztion ardura dela erasoak saihesten laguntzea eta erasoei erantzutea».

## ANOETAKO JAIK 2019

### EKAINAK 14, OSTIRALA

**22:30.** Dantza emanaldia kiroldegian: *Saketik, errebotera*, Anitz Dantza Taldeak antolatuta. Loatzoko musikariek ere parte hartuko dute.

### EKAINAK 15, LARUNBATA

**09:30.** Haurren krosa.

**10:15.** Txirrindulari lasterketa, Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenez.

**10:45.** Helduen krosa, Ivan Torres V. memoriale.

**12:00.** Kuadrillen eguneko txupinazoa plazan.

**14:00.** Kuadrillen bazkaria frontoian.

**16:30.** Kuadrillen arteko jokoak plazan.

**19:00.** Kuadrillen poteoa, Batumore Tolosako batukada feministak alaituta.

**21:00.** Kuadrillen afaria frontoian.

**23:00.** Iratzar taldearekin erromeria plazan.

### EKAINAK 16, IGANDEA

**12:00.** Hainbat jatorritako mokadutxoan dastaketa, musika eta dantzas alaituta: Kawadeni ikuskizuna (djembe, perkusioa, dantza...).

**18:00.** Bertso emanaldia elizan. Onintza Enbeita, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga, Eli Pagola eta Aitor Mendiluzerekin.

**Ondoren.** *Lau eme* dantza ikuskizuna Haatik konpainiaren eskutik eta taloak dastatzeko aukera.



## ERAGILEAK BATU DIRA JAI HERRIKOEN ALDE

Sare herritarrak, Matraka mugimendu feministak, Anoetako Gazte Asanbaldak, Sortuk eta Ernaik jai eredu parte hartzaile eta berdinzalea bultzatzeko egitaraua prestatu dute. Asteazkenetik aurrera izango dira ekitaldiak, baina bien bitartean txosnagunea prestatu dute egunotan. Argazkian, eragileak, muntai lanetan. ATARIA

## «PILOTALEKUKO GIRO HORI GUZTIA ISLATZEN SAIATUKO GARA DANTZA IKUSKIZUNEAN»

### AMAIUR LULUAGA

ANITZ DANTZA TALDEKO KIDEA

Gaur, 22:30ean, Abraham Olano kiroldegian *Saketik, errebotera* ikuskizuna eskainiko du Anitz dantza taldeak. Amaiur Luluaga (Anoeta, 1992) irakaslea emanaldia prestatzen eta koordinatzen aritu da.



**Zenbagarren aldia da emanaldi hau eskaintzen duzue-la?**

Oker ez banago, horrelako emanaldi handi bat antolatzen dugun hamargarren urtea izango da aurtengoa. Iaz gaueko emanaldiaren formatua bi urtez behin egitea erabaki genuen eta, hortaz, aurreko urtean ez zen emanaldirik egin. Horren ordez, Anitz dantza taldearen eguna egin genuen arratsaldez.

**Zer da aurtengorako prestatu duzuen?**

Pilotalekuan jokatzaren diren modalitate guztien erakustaldi bat da. Erremontea egongo da, xarea, eskupilota, pala eta raketistak egongo dira. Dantza askotan, elementua bera presente egongo da, eta beste askotan ez. Baina artekariak eta pilotalekuko giro hori guztia islatzen saiatuko gara.

**Zenbat dantza izango dira 'Saketik, errebotera' emanaldian eskainiko dituzuenak?**

11 dantza izango dira guztira eta, tartean, herriko antzerkizaleek parte hartze txikiak egingo dituzte, emanaldia biribiltzeko. Lehen, bertso-antzerkia egingen zen garaian, presentzia handiagoa zuten horrelakoek, baina orain dantza arteko loturak egiteaz arduratzen dira, agertokia girotzeko. Xabi Urretabizkaia eta Juanjo Oria ariko dira langintza horretan.

**Zenbat dantzarik hartuko dute parte?**

Gazteenak Lehen Hezkuntzako lehen mailakoak dira, eta helduenak, berriz,

50 urte ingurukoak. Guztira, 60 dantzari inguru izango direla kalkulatu dugu.

**Zeinek prestatu ditu emanaldian eskainiko diren koreografiak?**

Gure sorkuntzak dira dantza guztiak. Helduen taldearekin, aurten, beste era batera jokatu dugu. Koreografie-tako bat oso osorik beraiek muntatu dute. Aurten lehen aldiz sorkuntzan aritu dira.

**Eszenografia berezia prestatu al duzue aurtengorako?**

Ez da ezer berezirik izango. Pilotalekuaren testuinguru hori islatzen saiatuko gara dantza emanaldi honetan.

**Entsegu asko egin al dituzue aurtengo emanaldia prestatzeko?**

Talde bakoitzak saioa tokatzen zaion garaian egin ditu entseguak, eta, emanaldia gerturatu ahala, sakonago jardun du. Bi entsegu orokor ere egin ditugu, denok batera.

**Loatzo musika eskolako ikasleak ere bertan izango dira?**

Bai, urtero bezala, bertan egongo dira. Hiru dantzetako musikak eskainiko dituzte zuzenean; gainerako musikak aurrez grabatuak dira.

**Aurtengo emanaldian sorpresarik izango al da?**

Kolaborazio bereziak izango ditugu. Xabier Perez Euzkitzerena eta Iñaki Elortza *Txapas*-ena, esate baterako. Txapasek, esate baterako, koreografia batentzako audioa grabatu digu, pilota partidu bat irratiz emango balu bezala, eta gure ikasleek partida hori dantzatzeko dute. Eta Xabier Euzkitzek, berriz, saioaren aurkezpen lanak egin ditu, eta pilotalekuaren inguruan herrian aspaldiko urte-etatik hona egon diren kirolariak aipatzeko ditu.



**Haatik dantza konpainiak 'Lau eme' ikuskizuna eskainiko du igandean**

Konpainiaren *Lau eme* lan berriak emakumeei ematen die ikusgarritasuna, eta urteetan zehar ahalduzaren bilaketan egin behar izan duten borroka agertzen du.

«Kanpotik itxura ederra bazuten ere, sakonean zapalduak eta otzanak ziren garaiako emakumeek emango diote hasiera pieza honi. Familia zaindu eta euren senarrentzat apain egotea zen bete beharreko rola, baina, pausoz pauso, eta borroka feministak historian zehar emandako aurrerapausoak erakutsi nahian, gaur egungo emakumeengana iritsiko gara. Itxuraz libre eta independenteak... Baina, oraindik, euren jokabideengatik uneoro epaitzen dituen gizarte batean», dio konpainiak.

Aiert Beobidek zuzendu du emanaldia eta Amaiur Luluaga eta Anne Jauregi Anoetako dantzariekin batera, Irati Sorondo tolosarrak eta Jone Amezagak hartzen dute parte. 20:00etatik aurrera ikusi ahal izango da, igandean, Anoetako plazan.

MPO grabatuak

Apeadero-aldea, 2 behe  
20270 ANOETA • Gipuzkoa  
Tel. eta faxa: 943 653 447



# ALBIZTURKO UDALEKO ADMINISTRAZIOAREKIN KEXU AGERTU DIRA

Maixabel Matxinandiarena eta Karlos Ugartemendia alkate eta zinegotzi izan dira Albizturko Udalean, talde eragilean; administrazioko langileen jarrera salatu dute, beraien lana «oztopatu» dutelako



Albiztur herrian, azken agintaldian, Batzorde Kudeatzailea izan da udalean aritu dena. E. MAIZ

## Eneritz Maiz Etxarri

**U**dal Batzorde Kudeatzailea osatu zuten, 2015eko irailean, Albizturren. Batzorde Kudeatzaileko lehendakari gisa, alkate baten eskumenak eta ahalmenak bere gain hartu zituen, hasiera hartan, Karlos Ugartemendiak. 2017ko martxoaren 31n aldaketak gertatu ziren, lehendakari aldaketa eginez. Orduan hartu zuen kargua Maixabel Matxinandiarenak, eta Karlos Ugartemendiak kide izaten jarraitu zuen. Lau urte «oso zailak» izan direla azaldu dute, eta gogora ekarri nahi izan dute, talde eragilea sortzea bera zaila izan zela: «Boluntario geunden 17 pertsona, eta zazpi atera behar ziren taldea osatzeko, eta nahikoa lan izan genuen; boluntario ginen guztiak». Eta Matxinandiarenak aitortu du: «Zazpigarren bat falta zen, eta esperientzia falta eta bel-

durra nuen, baina animatu egin nintzen».

Talde eragileak, administraria barne, sinatzeko txosten bat jarri ziela kontatu dute, eta ez zutela onartu: «Nola onartuko dugu, bada, atzeko pertsona batzuek guztia erabakitzea, eta guk hori betetzea. Ezezkoa esan genuen, eta jarraian etorri ziren bi dimisio. Haiek agindu eta guk egin, hori ezinezkoa zen», azpimarratu du Ugartemendiak. «Atzetik maneiatu» nahi zituztela argitu dute. Hor hasi zen haserre, eta lehen egunetik administrariarekin gaizki hasi zirela azaldu dute.

«Udaletxera sartu, eta administraria eta idazkariarekin ez baduzu talde bat egiten lanerako, ez daukazu zer eginik. Eta guk dugu galtzeko guztia. Ez dugu informaziorik izan eta ezjakintasuna genuen. Espediente pila bat genituen irekita, eta bere erara eginda firmatze-

ko jarri zizkidan», esan du Ugartemendiak, eta «ez nituen sinatu». Idazkariak eragozpenak jarri zizkion, eta «egoera jasanezina» egin zitzaion, eta kargua utzi behar izan zuen.

Administrazio aldetik erabateko «gutxiespena» jaso dutela salatu nahi izan dute. «Inongo diru laguntzaren berririk ez ziguten ematen, lortu duguna, kanpotik lortutako informazioari esker izan da». Foru aldundia egoeraren jakitun zen eta, zuzenean, informazioa Matxinandiarenari bidaltzen hasi ziren.

## Ilegalki egindako obrak

Matxinandiarenak eta Ugartemendiak kontatu dute, aurretik, obra baimenak errazte aldera, tramiteak arindu zituztela: «Ideia txarra ez da, baina legea bete egin behar da. 50 euroren truke eman dira baimen asko. Enpresa, teila-



tu, igerilekua, borda... Dena 50 euro, eta hori administrariak bideratzen zuen».

«Aurreko alkateak nahi zuena egiten zuen, eta administrazioa ere oso lasai ibili zen. Baina, momentu batean idazkaria konturatzen da, eta gero zer? Eta espediente pila bat egin zituzten. Baina beraiei komeni zitzaieen egurra eta beste batzuei ez», azaldu dute aho batez. Gregorio Iraolaren agintaldiko kontuak dira espediente gehienak, eta horiek, batzorde kudeatzaileak hartu behar izan ditu: «Iraolak espediente guztiak sinatu zituen, eta guk eman behar izan diegu jarraipena. Legez tatu, isunak,... Guztia legearen barruan egin behar izan dugu. Orain, ematen du legeak guk egin ditugula. Kontua da, orain artean, mundu guztiak nahi duena egin duela, ni barne. Legea egin dago, eta Euskal Herriko 2/2006 lurzoru legea denentzako berdina da», dio Matxinandiarenak, eta jarraitzen du: «Espedienteen barruan nik bi nituen. Nekazal borda eta estalpea egiteko baimena eman zigun Iraolak hitzez; nahiz eta arauak onartu, ez nituen legezko paperak. Ez nuen informaziorik momentu hartan, eta ez ziguten eman. Ondoren, baimenik ez baduzu idatziz, onartu egin behar da egindakoa, eta isunak, proiektua, tasak eta hori dena egin dut nik gerora».

Beste bi zinegotzik ere, egindakoa onartuz legez tatu dituzte baimen legalik gabe egindako lanak.

«Alkate izateak badu bere ardura, nahiz eta batzuk oso arin ibili diren. Eta, orain, legez hasi nahi izan dugunean, txarrak gu gara», diote: «Administrazioaren gehiegikeria eta kaosa izan da. Obra txikiak baimenak eman dituzte, eta gero izugarritzko obrak egin dira. Desoreka handia daukagu obrekin, eta herri bat ezin da horrela aurrera eramana».

Matxinandiarenak apirilaren amaieran dimisioa aurkeztu zuen, etsita: «Idazkariak beste jende batekin hitz egin zuen lanera etorri aurretik, eta geldituta egon da udala». Gerora, martxoan hasi berria den idazkariari «oso jarrera ona» ikusi diola dio: «Herrian gauzak ondo egin nahi ditu, eta gustuko du landa eremua», dio. Kargua utziz geroztik, aste hauetan, «herrian jendea aprobetxatzen ari da gauzak egiteko», azaldu dute.

### **Egoera bideratzeko bilerak**

Gipuzkoako Foru Aldundia jakitun izanik, egoera konpondu nahian, bertako atea jo zuten albizturtarrek. Lehen bilera 2016ko abenduren 21ean egin zuten, Imanol Lasa eta Luis Elizegirekin. 2017ko irailean iritsiko zen bigarren bilera; kasu honetan, Maite Berruetabeña eta Josune Aldaberekin elkartu ziren. Baina entzun bakarrik egiten zietela salatu dute, inongo konponbiderik bilatu gabe. Eta, azkena, 2018ko urtarrilaren 29an, Lasa eta Berruetabeñarekin egindakoa izan zen.

Handik gutxira, idazkariak lana utzi zuen Albizturren, eta urtebetez egon dira idazkaririk gabe, eta horrek lana geldotzea ekarri du. «Nire aurkako idatzia egin utzi du, bereganako tratu txarrak leporatuz. Ez dago eskubiderik», azaldu du Matxinandiarenak.

### **Oletako bidea eta 102 etxebizitza**

Albizturko Oleta auzoko bidea egitea lortu dute, nahiz eta bukatu gabe gelditu: «Administrazioari ez zaio batere gustatu, ni zazpi lur-jaberekin adostasunera iritsi izana. Birekin kostatu zitzaidan gehien. Baliagarri izateko, udaletxean elkartu eta sinatu behar nuen, eta idazkariak ez zuen nahi izan. Abokatu bat eraman genuen, eta sinatutako orriak eskuetatik kendu, puskatu eta zakarrontzira bota zizkion. Ez zituzten paperak egin nahi izan», dio

### **Albizturko Udalak 255.307,37 euroko gerakina du 2018an**

**Herrian bolo-bolo dabilen kontuari ere erantzuna eman nahi izan diote: «Udaletxea zorretan utzi dugula esaten ari dira herri-tarrak, eta ez da egia. 2018 urtea, 225.307,37 euroko gerakinarekin itxi genuen».**

**Horrez gain, Oletako 3. fasea bukatzeko, edota prestamora bideratzeko, 54.056,27 euro dituzte.**

**Bestetik, esan behar da, 2017an hartu zuten prestamo bat duela udalak: 111.765,75 eurokoa. Eta hau hamar urtetan amortizatutako beharko dute.**

dimisioa aurkeztutako alkateak. «Jende pila batekin hitz egin nuen, eta batzuetan pentsatzen nuen niretzat ari nintzela, baina, azkenean, lortu nuen bertako baserriarekin adostasunera iristea», azaldu du.

Katastroaz eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaz (OHZ) ere kexu dira, «ez daudelako eguneratuta». Nabarmendu dute, 102tik 29 etxebizitza baino ez daudela behar bezala.

### **Herri bideak eta tasa**

1989. urtean egindako ordenantzen arabera, basoa ustiatzen duten enpresek fidantza jarri behar zuten, eta lur jabeek %15eko tasa ordaindu behar zuten. «Idazkariak nahi duena egiten du, eta ez da ezer pasatzen. Askori ez zaie ez tasa kobratu, ez eta fidantza eskatu ere. Edota fidantza jarritakoei, ez zaie itzuli. Orain, bideak konpontzeko dirua jarri behar izan du udalak», argitu du Matxinandiarenak. 2009an ordenantza hori aldatzen saiatu zirela diote, tasa %20ra igo, eta 19. artikulua sartu zuten; hau da, baserrietarako bideak egiteko bere garaian lurrak utzi zituzten jabeak salbuetsita leudeke tasa horietatik.

2009an hasiera eman ziotela argitu dute, baina ez zutela indarrean jarri ordenantza. Legez tatu 2015ean egin zela gaineratu dute.

«Idazkariarekin borroka handiak izan ditugu, eta guk beti eskatu dioguna izan da, guk herrian nahi duguna dela, obligazioak eta betebeharrak denentzat berdinak izatea, legeak esaten duen moduan. Kontua da, beraiek agindu nahi izan dutela; eta ez, erabakiak, udal gobernua hartzen ditu», azaldu dute. Eta, gaineratu: «Esaterako, diru laguntzetara aurkeztu ditugun aurrekontu guztiak nire etxeko ordenagailutik pasatu dira, nahiz eta, gero, udaletxetik bideratu», dio Matxinandiarenak. «Egin nahi izan ditugun gauza guztietan, moztan saiatu izan dira», gaineratu du Ugartemendiak. «Udaletxeak soldata ordaintzen dien pertsonen nola boikoteatu dezakete udal gobernua nola? Ez gaituzte gu izorratzen, baizik eta herria. Herrirako da galera».

Bukatzeko, «oraingo taldeari zortetik onena opa diogu, eta beraiek, gutxienez, idazkaria laguntzeko izango dute».

## Errege Kopa jokatzeko, lehen finala

**Erredakzioa** Tolosa

**T**olosa CF gizonen talde nagusiak Hirugarren Mailara iguera lortu du aurtengo denboraldian, eta horrek aukera bat ireki die: Errege Kopa jokatzeko. Espainiako Futbol Federazioak hala erabakita, Hirugarren Mailara iguera lortu duten taldeek sailkapen fasea jokatzeko aukera dute. Erkidegoko txapeldun geratzen diren 20 talde ariko dira lehian, abuztuan edo irailean.

Sailkapen fase horretara iristeko, beraz, Tolosa CFkoek lehenbizi EAEko txapeldunak izan behar dute. Tolosa

CF, Gipuzkoako ordezkari moduan, Urduliz Bizkaiko ordezkariarekin eta Ariznabarra Arabako ordezkariarekin hiruko txapelketa jokatzeko ari da, eta igande honetan erabakiko da zein geratzen den garaile. Berazubin jokatu dute Tolosak eta Ariznabarrak, 16:30ean hasita. Arabarrek ez dute aukerarik EAEko garaile izateko, eta Tolosak irabaztea beste aukerarik ez du, txapeldun izan eta hurrengo fasera pasatzeko. Izan ere, Urdulizen aurka berdindu egin zuen Tolosak orain bi aste, eta penaltiak jaurti zituzten, puntuetara berdinketa izanez gero, txapelduna zehazteko, eta Tolosak irabazi

zuen. Aurreko astean Urdulizek Ariznabarrari irabazi zion.

Tolosak, EAEko garaile geratuz gero, Hirugarren Mailara igo diren taldeetako baten kontra jokatu du sailkapen fasea. Eta, hori gaindituz gero, Espainiako Kopako zozketan sartuko litzateke. Zozketa horretan, Europako txapelketarik jokatzeko ez duten Lehen Mailako taldeak eta Bigarren Mailako taldeak sartuko lirateke. Errege Kopako lehen kanporaketa talde txikiaren zelaian jokatu dute, eta partida bakarrera. Tolosa horraino iristen bada, Real, Athletic, Alaves, Eibar edo Osasuna Berazubira etor daitezke.

## Urtzi Gurrutxagaren oroimenez, futboleant

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

**U**rtzi Gurrutxagaren 6. Futbol Memoriala jokatu dute, bihar, egun guztian zehar, Tolosako Berazubi zelaian. Alebin mailako 16 talde ariko dira lehian, eta Tolosa CFtik deia egin diete herritarrei, txapelketa ikustera joateko. Txapelketaren aurkezpenean hitz egin zuen Haritz Doyharzabalek, egun Tolosa CFko zuzendaritzako kidea eta Gurrutxagaren lehengusua: «Bost urte eta erdi dira Urtzi joan zela eta, txapelketa honen bidez, futboleant jokatu, gogoan dugu».

Udaleko ordezkari gisa, Patxi Amantegi eta Christian Fernandez zinegotziak izan ziren aurkezpenean. Azken honek, udalaren izenean Tolosa CFri eskertu zion txapelketaren antolaketa, eta gogora ekarri zuen parte hartuko duten taldeen maila. Bide batez, herritarrei ere «harmailak betetzeko» deia egin zien, eta parte hartuko duten gaztetxoak anima ditzatela eskatu zien.

Txapelketaren hasiera 09:30ean izango da. Lau taldeko lau multzo egingo dituzte eta, goizeko fasearen



Fernandez, Doyharzabal eta Amantegi. I.G.L.

ondoren, multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek aurrera egingo dute, eta arratsaldeko kanporaketak jokatu dituzte. Finala 18:00ak aldera izango da eta, gero, Urtzi Gurrutxagaren senideek parte hartuko dute sari banaketan. A taldean Real, Beasain, Intxurre eta Euskalduna izango dira. B Taldean Tolosa A, Beti Kozkor, Real Union eta Ordizia. C taldean Tolosa B, Bergara, Zarautz eta Lazkao. Eta D taldean, Tolosa C, Aretxabaleta, Urola eta Martutene.

## Herriarteko eskuzkoan, eskualdekorik ez finalerdietan

**Erredakzioa**

**H**erriarteko pilota txapelketako eskuzko modalitatean eskualdeko ordezkariak ez da izango finalerdietan. Altxok Azkoitiaren aurka galdu du kanporaketa, eta Tolosak ere ezin izan dio Ataun aurre egin. Azkoitiak itzulerako hiru partidak irabazi zizkion Altxori eta, orokorrean, 5-1 gailendu ziren azkoitiarrak. Tolosak estu hartu zuen Ataun, itzulerakoan, Beotibarren 2-1 irabazi baitzuten, eta orokorrean 3na berdindu zuten. Sei partidetakoa kontatzerakoan, baina, atandarrek irabazi zuten, 107 egin baitzituzten, eta tolosarrek 99.

Pauso sendoz jarraitzen duena Tolosa da, gomazko paleta modalitatean. Finalerdietako kanporaketa jokatzeko ari da Usurbilen aurka, eta joaneko norgehiagokan 1-2 irabazi zuten tolosarrek. Itzulerako norgehiagoka Tolosako Beotibar frontoian jokatu dute, bihar, 19:30ean hasita. Kanporaketa gaindituz gero, hurrengo asteburuan izango dute finala, Azkoitia edo Hernaniren aurka.

# V.ataria

## pilota txapelketa

### ESKUZ

#### **BENJAMINAKA** **BERASTEGLI,** **FINALERDIAK**

**Ostirala, 18:30**

Vidaurreta-Lacarra  
Gonzalez-Zufiria  
Aizpurua-Odrizabala  
Otaegi-Mayoz

#### **BENJAMINAKB** **ALBIZTUR,** **FINALERDIAK**

**Ostirala, 18:00**

Ruiz-Eizagirre  
Arteaga-Nazabal  
Mintegi-Acosta  
Lanzeta-Iraola

### ALEBINAK

#### **ALTZO,** **FINALERDIAK**

**Ostirala, 18:30**

Murua-Elola  
Meulman-Otaegi  
Altuna-Perurena  
Intxausti-Lopetegui

### PALAZ

#### **ALEBINAK** **BIDANIA,** **FINALERDIAK**

**Ostirala, 18:00**

Juanena-Beobide  
Agirre-Etxarri  
Zubillaga-Lobo  
Sarasola-Navarro

#### **INFANTILAK** **BIDANIA,** **FINALERDIAK**

**Ostirala, 18:00**

Arretxe-Tejeria  
Faz-Zubizarreta-Etxeberria  
Aramendi-Iraola  
Otaegi-Aranburu

## Aulkitik

### Aurten asko disfrutatu dut

**L**isto, bukatu da aurtengoa ere. Beste denboraldi bat, baina ez nolanhiko denboraldia. Orain dela urte batzuk zeinek esango ote zuen, hurrengo urtean biziko duguna bizitzeko aukerarik izango genuenik... Lanaren ondorioak.



**MARTZELINO CABERO**  
TOLOSA CF  
EUSKAL LIGA

Lanaren ondorioak.

Aurtengoari bukaera eman diogu, Aurrera de Vitoriaren aurkako partidarekin. Hurrengo urteari begira, polita izan da kalitatezko eta potentzial

handiko horrelako taldeen aurka jokatuko dugula ikustea.

Denboraldi bukaerarekin ere, batzuen zikloak ixten dira. Eskerrik asko, bene-benetan, urte hauetan eman duzuen guztiagatik, zuek gabe ez zen berdina izango eta. Bestalde, animo asko Maddiri eta baita Oihanari ere, zuekin gaude! Zorionak harrobian lanean ari zareten guztiontzat ere, lehen esan bezala, lanaren ondorioak.

Orain, hurrengo denboraldia prestatzera. A, ez, lehenago oporrak (entrenatzaileei pixka bat geratzen zaie oraindik, kar, kar). Ni jada hasi nahiz oporrez disfrutatzen, eta espero dut jokalaria ere deskonektatu eta uda ona izatea. Eta jakin, nahiz eta partidetan asko sufritu eta nire haserrealdiak izan, asko disfrutatu dudala aurten. Zorionak ekipo! Hurrengo urtean gehiago!

### Tolosa-Aurrera elkartekoen partidak asteburuan

**Tolosa.** Tolosa-Aurrera Pilota elkarteak Berria Txapelketa jokatuko du Azpeitiko Ilunperen aurka, igandean, Beotibarren, 17:00etan. Egun berean, 11:00etan, Gipuzkoako lau eta erdiko txapelketa, bigarren mailako jubeni-len finalean, elkarteko Miqueo eta Goikoetxeaundia lehiatuko dira. Bestalde, elkarteko Mikel Etxeberriak Bergara Hiria Txapelketa irabazi berri du, Larrazabalekin batera.

### Artola-Urrutikoetxea eta Jaka-Irribarria, asteburuan

**Alegia-Lizartza.** San Fermin Txapelketako lau eta erdiko txapelketa, final-zortzirenetako partidak jokatuko dira asteburuan. Iñaki Artola alegiarak Urrutikoetxearen aurka jokatuko du, gaur, Arrigorriagan, eta ATARIA IRRATIAK zuzenean emango du, 20:00etatik aurrera. Erik Jaka lizarretzarrak Irribarriaren aurka jokatuko du, igandean, Beasainen, 17:30ean hasiko den jaialdiaren barruan.

## ZUZENEAN

Artola  
Vs  
Urrutikoetxea



Ostiralean, 20:00etan  
hasita, Arrigorriagatik  
zuzenean  
San Fermin Txapelketa,  
lau eta erdian.

ataria 107.6 fm  
irratia www.ataria.eus





# Чернобыль



1986an gertatu zen Txernobylgo zentral nuklearreko ezbeharra; Sobietar Batasuna kolokan jarri zuen gertakariak. ATARIA

**1** 986ko urtarrilean jaio nintzen. XX. mendeko zientziak bere lehen opari handia hiru hilabete nituela egin zidan. Azken hila-betean hainbesteko arrakasta izan duen minitelesailak agerian utzi digu, gizakiak gure planetaren garapenean duen boterea. Orduko Sobietar Batasuneko Txernobyl hiritik gertu zegoen Vladimir Ilich Lenin zentral nuklearrako errektore bat lehertu zen. Berderatzi urte lanean zeramatzan zentralak (2000. urtean itxi zuten guztiz, gezurra dirudien arren), epe motzean merkea den energia horrekin, Ukrainako ingurune hura argizatzen.

Benetan miresgarria iruditzen zait energia lortzeko modu hau. Kimikaria izatek urrun nagoen arren, material erradioaktiboen atomoen fisioa gauzatu eta, prozesu konplexu baten ondorioz, energia elektrikoa lortzea, magiatik gertu dabilen ekintza iruditzen zait. Abiadura biziko abesti baten erritmo-ra dantzan ibiltzaren pare ikusten dut, kristal finez egindako kopaz betetako

bandeja bat eskuan duzula. Patinetan. Emaitza liluragarria izan daiteke, baina arriskua ere agerikoa da.

1986ko apiril hartan, dantzaria erori egin zen. Kopa ugari lurrera bota zituen, eta mila pusketa egin ziren. Horrez gain, nahi baino kopa gehiagok, dantzaria zegoen tokitik hegan atera, eta inguru guztiak kristalez bete zituzten. Etxeko sukaldean gertatu ohi zaigun bezala, istripua gertatu eta denbora batera, oraindik ere, oinetan zauziak egiteko arriskuan egon gaitezke.

Lehen aipatu bezala, epe motzean oso energia iturri merkea da energia nuklearra. Munduaren aurrean, gainera, teknologia arloko hegemonia bistaratu nahi izan zuen Mikhail Gorbacheven gobernuak, Amerikar Estatu Batuekin lehia bizian. Kontuak kontu, Sobietar Batasuneko eta Europako zati handi batek pairatu zituen, hondamendiaren kalte zuzen nahiz albo-kalteak.

Energia hau epe motzean merkea dela azpimarratzen dut, oraindik ere, biologikoki nahiz ekonomikoki, leher-

ketak eragin zituen kalteak nabariak baitira. Duela hiru urte amaitu zuten, ehun urte iraungo omen dituen leher-tutako errektorearen sarkofago berria eraikitzez; 1.500 milioi euroko kostua izan du. Mundu guztitik jaso dituzte makroeraikuntza hori egiteko ekarpen ekonomikoak, baita AEBtatik ere. Gorbachevek berak aitortu zuen, Txernobylko deskalabrua izan zela So-

## **Munduaren aurrean teknologia arloko hegemonia bistaratu nahi izan zuen Mikhail Gorbacheven gobernuak, Amerikar Estatu Batuekin lehia bizian**

bietar Batasuna desegiteko pisuzko arrazoietakoa bat.

Zuetako askok Lemoiz geratzea lortu zenuten. Alemania, azken hamarkadan, bere programa nuklearrei 180 graduko bira eman, eta zentralak ixten hasi da. Gure inguruan, berriz, batez ere iparralderantz begiraturaz gero, mapa nuklearrak beldurra ematen du. Beranduegi bada ere, ea dantzariari dantzalekuegan gustura dantzan, eta tabernariari terrazetan lasai lanean uzteko hautua egiten dugun.



**ANDER LORENTE**  
IRAKASLEA ETA INGENIARIA



ATARIA

# Ziazerba eta ganba pastela

**B**aratxuriarekin hasiko gara, zatitxotan moztuz eta prestatuz. Gero, zartagina hartu, eta gurin pixka bat botako diogu, olio bota beharrean; urtzen denean, baratxuriak botako ditugu bertara.

Horren ondoren, ganbak botako ditugu zartaginera, egiten joan daitezten, eta ganba horiei gatz pixka bat ere botako diegu. Ganbak, freskoak izan beharrean izoztutakoak baldin badira, lehenago desizoztu egin beharko ditug edo, bestela, momentuan, mikrouhin labean sartu. Ganbei indar pixka bat besterik ez diegu eman-go, pixka bat gorritzeko eta baratxuri zaporea hartzeko. Izan ere, gero labean sartuko ditugu.

Zartagian baratxuriak eta ganbak pixka bat eduki, eta gero perrexila eta gatz botako ditugu gainetik.

Hau guztia gorritzen ari den bitartean, ziazerbak prestatuko ditugu. Bate-tik, uretatik pasatuko ditugu, eta gero txortena kendu, hala nahi baldin badugu behintzat; nik hostoarekin bakarrik egiten dut errezeta hau, samurragoa geratzen delako. Dena den, egia da irabiagailua erabil dezakegula eta, ondorioz, txortena erabil dezakegula. Era berean, hostoak oso handiak baldin badira, erdibitu egingo ditugu zartagira bota aurretik.

Su oso-oso baxuan jarri, eta zartaginari tapa bat jarriko diogu gainetik. Modu horretan, gehiegi erre gabe bigundu egingo dira. Hasieran ziazerba asko dagoela irudituko zaigu, baina gero ezerezean geratzen dira.

Hurrengo pausoa arrautzak irabiatzea izango da, ontzi batean. Gatz pixka bat botako diogu, eta gero esnegaina gehituko diogu nahasketari. Pastela xuabe-



**AINTZANE ARTOLA**  
SUKALDARIA

xuabe gera dadin, ziazerbak arrautza eta esnegain nahasketa honi botako dizkiogu, eta irabiagailua pasatuko diogu guztiari; sartu-atera bat. Masa edo ore berdexka bat geratuko zaigu, eta horri ganbak botako dizkiogu, osorik edo erdibituta; pastela moztzen dugunean ikusteko moduan, behintzat.

Jarraian, labea 170 graduan berotuko dugu, eta ontzi altu samar bat prestatuko dugu, labean sartzeko; bizkotxoak-eta egiteko erabiltzen ditugun horietakoa. Gurin pixka bat botako diogu, ezer ez itsasteko; bestela, olio tanta bat bota daiteke, ondo zabaldu, eta irin pixka bat gehitu.

Behin prestatu dugun guztia labean sartutakoan, 30 bat minutuz bertan edukiko dugu, eta bizkotxoekin egiten dugun moduan, txotxa sartuko dugu, garbia edo zikina ateratzen den ikusi eta, beraz, ondo eginda dagoen jakiteko. Garrantzitsua da labea ahalik eta gutxien irekitzea, berotasuna mantentzeko.

## Mahonesa, laguntzeko

Plater honi laguntzeko, aukera bat da mahonesa, eta hori etxean egin dezakegu. Zaila da ondo ateratzea, moztu egiten delako, baina saiaturko gara.

Horretarako, arrautza bat, 100 ml olio, gatz pixka bat, eta limoia edo ozpina. Hori guztia irabiagailuaren potolan sartuko dugu, eta irabiagailua barruraino sartuko dugu, oraindik piztu gabe. Arrautza harrapatzen dugunean, orduan piztuko dugu, eta hortxe mantenduko. Segundu batzuz hor edukita, gora eta behera ibiliko dugu gero. Eta, horrela, mahonesak eginda beharko luke.

Eta horrela biribilduko dugu erre-ta; pastela momentuan jan genezake, bero edo epel, edo bestela hurrengo egunerako utzi, hotz jateko.

## OSAGAIAK

- 400 gr ziazerba
- 200 ml esnegain
- 6 arrautza
- Gurina
- 20 ganba inguru
- Baratxuri hortz bat
- Perrexila
- Olio
- Gatz

# «Herrialdeek baino gehiago, tokiek eta jendeak erakartzen naute»

**FERNANDO ROJO**  
IRAKASLEA

Irakaslea da Fernando Rojo tolosarra, eta opor egunak bidaiatzeko aprobetxatzen ditu. Argazki kamera lagun hartuta munduan zehar ibiltzen da, eta azken bidaiako argazkiekin osatutako erakusketa jarri du Alegian.

## **Eneritz Maiz Etxarri**

Historia eta geografiako irakaslea da Fernando Rojo Tolosa (Tolosa, 1967), eta gaur egun Lizartzan bizi da. Irakasle izatearen abantailetakoa bat du opor egunak izatearena eta, egun horiek, posible duen guztietan bidaiatzeko baliatzen ditu. Gehienez bakarrik, eta argazki kamera lagun duela joaten da munduan barrena. Indiara egin berri duen bidaiako argazkiekin, argazki erakusketa jarria du Alegiako Erretirodunen tabernan.

**Irakaslea, bidaiaria, argazkilaria, dantzaria... Zein da Fernando Rojo?**

Bidaia edo argazki zalea naizela esatea gustatzen zait, eta irakasle izaten saiatzen naiz. Ikastola bateko historia irakaslea naiz, eta ia 25 urtez Udaberriko dantzaria izan nintzen. Orain gehiago aritzen naiz bidaiatzera eta argazkiak ateratzen, beste bizio askoren artean.

**Alegiako Erretirodunen tabernan argazki erakusketa duzu jarrita. Zer ikus daiteke bertan?**

Urtarrilean Indiara egin nuen bidaia txiki bat da. Espainiar argazkilaria batek antolatutako bidaia zen. Hamabi urtez behin Indian egiten den festibal bat da, eta beste festibal bat tartean egiten dute, hau da, esan dezakegu, sei urtez





behin egiten dela, eta horietako bat zen. Festibal hori aspalditik ezagutzen dut, zeren niri erlijio mundua asko gus-tatzen zait. Nahiz eta fededuna ez izan, asko erakartzen naute kulturek eta erlijioek.

Iazko San Joan bezperan, la-gun baten zain nengoela, taber-na batean begira hasi nintzen, ea hurrengo Kumbhamela noiz zen. Horrela deitzen diote, eta ikusi nuen bidaia festibalera eta argazkiak ateratzera joateko zela, eta momentuan apuntatu nin-tzen.

#### **Zer da Kumbhamela?**

Festibal erlijioso hau erromesal-di hindu bat da. Aspalditik eza-gutzen nuen eta aspalditik joan nahi nuen. Bertan, denera bi hilabetetan, 150 milioi pertsona elkartzen dira. Mun-duan dagoen erromesaldirik handiena da, eta Guinness errekorrean ere badago. Dena nahasten nuela iruditzen zit-zaidan, bidaia, argazkiak eta zeremonia erlijiosoa; nire hiru bizio handietakoak. Hor ateratako argazki bilduma-ren ale txiki bat ikusten da Alegiako tabernan.

**«Argazkia da momentu bat betikotzea, eta edozein momentu izan daiteke; badaezpada, beti eraman behar da kamera eskuetan»**

#### **Noiz arte egongo dira ikusgai?**

Uste dut ekainaren bukaera bitartean egongo direla.

#### **Gustuko duzu bidaiatzea, eta urtero bidaiatzen duzu.**

Urtero bi edo hiru bidaia egiten ditut. Ez dut ukatzen irakasle izatearen abantaila dela. Gauza txarrak ere baditu, baina niretzat onak gehiago ditu. Abantaila da bidaiatzeko. Bi oporralditan ziur joaten naiz, eta askotan hirure-tan. Eta zubiren bat dugunean Europa aldera bidaia laburren bat ere egiten dut, noizean behin. **Gogoan dituzu bidaia guz-tiak?**

Bai, noski. Guztiak. Eta toki ba-tzuetan egon naiz bi, hiru edo bost aldiz. Baina Ozeanian ez naiz egon, eta Ameriketara ere ez naiz herrialde askotan egon. Hemengo jendea asko joaten da Hego Ameriketara, hizkuntzagatik edo, eta gustatzen zait, eta badaukat gogo-a Ameriketara barneratzeko; baina bidaiak hain dira gares-tiak, askotan atzera egiten dudala. Asia edo Afrikara bi-daiatu izan dut, hegaldiak merkeagoak direlako.

Afrika asko ezagutzen dut, eta Asian ere herrialde asko ezagutzen ditut, eta European ere bai.

**Asiak eta Afrikak gehiago erakartzen zaituzte?**

Erakarki mundu guztiak erakartzen nau. Esaterako, izugarritzko gogoia daukat Mexiko ezagutzeko, edo Brasil. Oso aberatsak iruditzen zaizkit, baina hasten naiz prezioak begiratzen eta, egia da, oso berandu ibiltzen naizela hegaldien bila, eta prezioak gehiegizkoak iruditzen zaizkit. Askotan ez nago prest hainbeste ordaintzeko.

Beste toki batzuetara joateko, agian, garesti ordaindu dut, baina leku oso-oso bereziren batera. Mexikok ere mezezi du, baina, behin joaten hasita, bi hilabete joan nahiko nuke. Behin Mexiko edo Brasilera joanda hilabete eta erditik gora pasatzea gustatuko litzaidake. Faktore asko sartzen dira tartean eta, agian horregatik, gutxi izan naiz. Kolonbian edo Panaman egon naiz, Kuban, Jamaikan, Ipar Ameriketean, New Yorken bost aldiz, Kanadan... Baina Hego Ameriketean, gutxi.

**Ezagutu duzun zein herrialde nabarmenduko zenituzke?**

Herrialdeek baino gehiago, ni tokiek eta jendeak erakartzen naute. Ez zait gustatzen klasifikatzea, batzuetan jendea da jatorra, beste batzuetan paisaia da zoragarria, eta beste batzuetan kultura da erakargarria. Asko-asko gustatzen zait Palestina. Nik 15 urte nituenetik izugarritzko gatazka politikoa dauka, eta asko interesatzen zait. Lehen aldiz Askapenarekin joan nintzen, eta txundituta gelditu nintzen Jerusalemekin eta palestinar kulturarekin. Bost alditan egon naiz.

Etiopia ere aipatuko nuke, oso berezia delako. Beste bat, egin berri dudana eta bidaiaria antolatuan, Ipar Korea. Oso-oso ikusgarria da. Nik normalean bakarrik bidaiatzen dut, baina horra bai, antolatuta bidaiatu behar da.

**Antolatutako bidaiaria sartu zinen, beraz, Ipar Koreara.** Txinako agentzia batekin jarri nintzen kontaktuan, eta haien bitartez joan nintzen, hamar egun. Oso bidaiaria ikusgarria izan zen. Nazioarteko politikak asko erakartzen nau eta horregatik joan nintzen Ipar Koreara.

**Zer egin zitzaizun deigarriena?**

Ematen du orain dela ez dakit zenbat urte atzera bizi direla. Ez dut esango diktadura itxi bat ez denik, eta ez dut hitz egingo Kim Jong-unen alde, baina esaten diren gauza asko ez dira egia. «Han ez dute uzten argazkiak ateratzen», ba nik 2000 atera nituen. «Jendearekin ezin da hitz egin». Agian beldurra daukate gurekin hitz egiteko, baina hitz egin dezakezu jendearekin. Diktadura itxia da, eta ez dira bizi gure askatasunarekin. Ni hondartzan bakarrik egon nintzen. Taberman ere egon nintzen, beraiek egiten duten artisau garagardea edaten, eta gazte jendea ere bazegoen. Alderdikoak zirela? Funtzionarioen edo militarren seme-alabak zirela? Agian bai, ez dakit.

Jartzen dizkiguten gidariak komisario politikoak dira, baina, gure taldean, esaterako, Coca cola edan zuen bakarra bera izan zen. Ha ez duzu Coca colarik ikusten, eta pentsatzen genuen ezinezkoa izango zela han edatea, baina bertan konturatu ginen baietz. Ez da esaten den bezainbeste. Hala ere, ez dut Ipar Korearen alde hitz egingo gutziz.



**Beste tokiren bat aipatu nahiko zenuke?**

New York asko gustatzen zait hiri moduan, eta bost aldiz izan naiz. Oso erakargarria iruditzen zait hiria. Badago gorrotatzen duen jendea, eta hori ere ulertzen dut, baina niri asko gustatzen zait.

Asko aipatuko nituzke. Iaz Groenlandian izan nintzen, eta ikaragarria da. Agian, berria delako. India ahaztu zait. India da kolorea eta usaina, eta argazki zaleentzako ikaragarria da.

**Herrialdeak bezain garrantzitsu dira bertakoak. Non goek utzi dute zugar arrastoa?**

Niri bidaietan gehien erakartzen nauena, jendea da. Paisaia ere gustatzen zait, hondartzetan bainua hartzea; baina niri, benetan, kulturak eta jendea gustatzen zaizkit. Jendearekin egotea gustatzen zait. Mundu guztian topatu dut jende ona eta txarra; zintzoa, ez hain zintzoa; denetarik. Baina, bereziki, traturik onena eman didatenak herrialde musulmanak dira, inongo zalantzarik gabe. Siria, Iran, Libano, Egipto, Sudan... Tea segituan eskaintzen dizute. Sudanek duen diktadura zorrotzarekin, baina han bezala toki gutxitan tratatu naute. Jendea etortzen zaizu hitz egitera, zutaz jakin nahi dute, beraiena kontatu nahi dizute; jatekoa ematea ere tokatu zait.

**Bidaiaria bat antolatzerakoan, zertan oinarritzen zara toki bat aukeratzeko?**

Denetik tokatu zait. Ikasleei asko hitz egiten diet nire bi-





Ezkerrean, Nepalen, Fernando Rojo Amar Bharati sadhu edo monjearekin; 1973an, Vietnamgo gerraren aurkako protesta moduan, besoa altxatzeko sakrifizioa egin zuen eta, orduz geroztik, ez du besoa inoiz jaitsi; Rojo bere bila ibili zen, berariaz. Eskuinean, Ipar Koreara egindako bidaiko irudia. F. ROJO

daiez, eta aguantatu behar izaten naute. Historia eta geografia erakusten dut, eta Ameriketako mapa egiten ari gine-la ikasle batek galdetu zidan ea Groenlandian egon ahal naizen. Ez. Eta hortik hasi nintzen informazioa bilatzen, eta aurreko abuztuan Groenlandian bukatu nuen.

Eta, iaz, Sao Tome eta Principe uhartean izan nintzen. Afrikako bigarren herrialde txikiena da. Egoera pertsonal bategatik, bidaia bat egin beharrean, bi motz egin ahal nituen, eta ez nekien zer egin uztailean. Bakarrik egon nahi nuen, eta Interneten begira hasi nintzen, eta malariarik ez duen herrialde tropikal bakarra da; pobreak dira, baina dirua inbertitu zuten malariaren aurka. Afrikako herrialdeak gaez arriskutsuak dira, baina han delikuentziarik ez dago; zoragarri. Plentziako errefuxiatu bat dago bertan, eta lortu nuen berarekin egotea. Baina, aipatu moduan, bidaiak dira garestiak. Eta, kasu askotan, argazki bat ikusi dudalako edo artikulu bat irakurri dudalako izaten da.

#### **Ingurukoek eskatuko dizkizute gomendioak, ezta?**

Ez naiz oso gomendio zale; bere garaian eman izan zizkidaten, baina gero desilusia hartu nuen. Nire esperientziatik

**«Bakarrik askoz  
gehiago ikusten eta  
ikasten duzu, baina ez  
diot uko egiten  
jendearekin  
bidaiatzeari»**

hitz egiten diet, eta zergatik gustatu zaidan kontatzen diet. Ez zait gustatzen bai edo bai joan behar dela esatea. Mundu bat gara pertsona bakoitza. Esaterako, orain bigarren aldiz Indian egon naiz, eta zoragarria da, baina oso gogorra da ikusteko, batik bat, hirietan. Baina aberasgarria, kulturalki, eta erlijioaren mundua ikaragarria da. Oso turistikoa da,

eta turistok asko kutsatu dugu, baina bere esentzia mantentzen du, eta indartsua da; eta hori gustatzen zait. Badaude munduan esentzia galdu duten toki batzuk, asko kutsatu ditugulako.

#### **Hainbeste bidaia eginda, beldurra noizbait sentitu duzu?**

Beldurrik ez dut inoiz pasatu. Une konkretu batean, bai. Herrialde konkretu batera inoiz ez naiz joan beldurreakin, baina suertatu zaizkit egoera deseroso-

ak. Egin dudana bidaia bereziarena 2007an izan zen. Ia Afrika osoa zeharkatu nuen, Istanbulen hasi eta ekialde hurbil guztia zeharkatuz. Sei hilabeteko eszedentzia hartu nuen horretarako, eta ezin dut ukatu momentu txar batzuk eduki nituela: kamioi batean nindoan eta bide bat hartu zuen, eta gida liburuan irakurtzen hasi, eta orain jihadistak moduan ezagutzen ditugunen eremua zela jartzen zuen. Or-



dubetez, beldurra ez dakit, baina lasai ez nintzen joan. Beste batean lapurtu egin zidaten. Afrika mundu bat da, eta atxilotuta ere egon nintzen.

**Zergatik atxilotuta?**

Zimbabwe oso gaizki dago ekonomikoki. Uste dut dirua nahi zutela, eta edozein aitzakia bilatu zutela. Autobus geltoki batean nengoen Mozambikera joateko, eta polizia inguratu ninduen. Polizia etxera joan behar nuela esaten zidaten, eta nik ezetz; ez nuela ezer egin. Argazki bat atera nuela esaten zidaten, eta nik ezetz. Egoskor jarri nintzen, eta lurrean eseri nintzen. Oso urduri nengoen.

Autobusa hartu nuen, baina autobusa, zuzenean, 500 metrora zegoen komisariara joan zen. Komisaria horretatik beste batera eraman ninduen poliziak, eta galdeketa bat egin zidaten. Dirua nahi zuten. Nola edo hala, libre eta ordaindu gabe atera nintzen. Susmoa banuen, eta atera nituen bi argazkiak ezabatu egin nituen, eta kamerari pilak ere kendu egin nizkion. Lehen bi-hiru orduetan urduri egon nintzen. Eta askotan pasatu izan zait kazetaria ote naizen galdetzea; kazetariak ez dituzte nahi. Irakaslea naitzela, eta nire ikasleen argazkiak eramaten ditut. Jendeari ikustea gustatzen zaio.

**Bakarrik bidaiatzeak alde onak eta txarrak izango ditu.**

Bai, onak eta txarrak. Bakarrik, nahi duzuna egiten duzu uneoro. Nik onartzen dut pixka bat zaila naizela elkarbizitzarako eta, nahiz eta lagunak eduki, bakarrik nahi dudana egiten dut, inori itzaroteko eskatu beharrik gabe. Argazkiak ateratzen edo irakurtzen egon naiteke. Lasaiago nago bakarrik. Are garrantzitsuago dena, nire bidaiatzeko motiboetako bat ikastea da; asko gustatzen zait ikastea. Ikusi eta ikasi. Iruditzen zait bakarrik askoz gehiago ikusten eta ikasten duzula, baina ez diot uko egiten jendearekin bidaiatzeari, eta noizean behin lagunekin ere joaten naiz. Oraintxe dantzako lagunekin Dublinen izan naiz.

Alde txarra, aldiz, gauetan, afaldu ondoren, zerbeza bat hartu eta ohera joan aurretik eguna errepasatzeko ez duzula inor. Hor ez dut ukatuko jendearen falta sumatzen ez dudarik. Bertakoekin eta beste bidaiariekin egoten naiz, baina ez da berdina. Askotan pentsatu izan dut: «Oraintxe hemen lagun bat zerbeza bat hartzeko, eta lasai hitz egiteko».

**Aipatu duzu beti berandu ibiltzen zarela bidaiak antolatzen. Noiz hasten zara?**

Lehen azkarrago egiten nituen, agian, garbi nuelako zer ezagutu nahi nuen. Horiek betetzen joan naizen heinean, gero eta polikiago nabil. Aurten, oraindik, ez dakit nora joan. Ideia batzuk baditut baina...

**Tokiak bukatzen ari zaizkizu...**

Bukatzen ez. Oraindik ere mundua oso zabala da. Geratzen dira tokiak, baina lehen irrika handia nuen tokiak ezagutzeko, eta horiek pasatzen joan dira.

**Pentsatzen dut argazki kamera izango dela motxilan sartzan duzun lehen gauzetako bat.**

Lehenengoa. Askotan ez ditut erabiltzen, baina, bi edo hiru objektibo eta flasha sartzan ditut. Argazkien mundua pila bat gustatzen zait. Bere garaian inbertsio bat egin nuen, eta kamera ere txukuna daukat. Pisua eramaten dut, baina arropatik kentzen dut.

**Zer izan da lehenago: bidaia zale izatea ala argazki zale tasuna?**



Iaz Groenlandian izan zen. F. ROJO

Bietatik, baina, nik uste dut, bidaiarena beranduago etorri zela. Uste dut bidaiena Udaberri dantza taldeari eskertu behar diodala. Lehenengo bidaiak, European zehar, dantza eginenez izan ziren. Aitari ere kultura asko gustatzen zaio, eta berak ere eragin dit, nahiz eta ez duen bidaiatu. Egia da argazkilaritza betidanik gustatu izan zaidala; txarra nintzen argazkiak ateratzen, eta orain hainbestean ateratzen ditut. Argazkilaria handia izan gabe, ateratzen ditut argazki politak.

**Denbora hartzen duzu argazkiak ateratzeko?**

Bai. Jendearekin nagoenean nik askoz ere argazki gutxiago ateratzen ditut, ez nago eroso argazkiak ateratzeko. Bakarrik bidaiatzeko beste motiboetako bat hori da. Egon naiteke izkina batean, bi ordu eserita, argazkiak ateratzen. Edo gau batean atera, argazkiak egiteko, Jerusalemen. Hori bai, beti kamera eskuetan. Argazkia da momentu bat betikotzea, eta edozein momentu izan daiteke eta, badaezpada, beti eraman behar da eskuetan. Norbaiti argazkia atera behar diodanean baimena eskatzen diot, eta ez zaizkit asko gustatzen argazki prestatu horiek. Aterako diot bera jartzen den bezala, baina ez dut ukatuko, noizbait egin dudala, eta Indian egin dugu.

**Herrialderen bat suertatu zaizu zaila argazkiak ateratzeko?**

Tokitik tokira alde handiak daude, eta herrialde musulman batzuetan ez zaie gustatzen, eta guztiz errespetatu behar duzu. Marokoko mendi aldean dauden berbereen herrixketan, adibidez. Herrialde musulmanetan debekatuta dagoela



Alegiako Erretirodunen tabernan ikusgai dauden argazkietako bi. F. ROJO

esaten dute, eta ez da horrela, denetik dago. Iranen asko gustatzen zaie; agian, emakumeei zaila da ateratzea. Atera daiteske, eta uzten dute ateratzen; Sudanen ere bai. Asian izugarri gustatzen zaie, eta mila argazki atera ditzakezu. Eta Indian, orain, guk mila ateratzen ditugu, baina beraiek bi mila ateratzen dizkizute. Gu ginen han arrotzak. Irribarrea ateratzen duzu, eta kito.

### **Bidaietan bizitakoa erakusteko modu bat izango da argazki erakusketa, ezta?**

Ez naiz protagonismo zalea, baina gustatzen zait nire bidaiez hitz egitea. Bidaia guztiek dute pre eta post bat. Aurre hori da bidaia prestatzea, baina ez zait gustatzen guztiz prestatzea; inprobisatzea gustatzen zait. Gero dago bidaia eta atzetik dator ostea. Post hau da elkarriketa egitea, Alegiako erakusketa, edo post bat da nire ikasleei klasea nire argazkien bidez ematea. Ez ondo pasatzeko eta denbora galtzeko, ez, ez; baizik eta gaiarekin zerikusia dutelako. Erlijioak erakusten ditut nire diapositiben bitartez: islama, budismoa, hinduismoa.

### **Zergatik du erlijioak zuregan hainbesteko garrantzia?**

Kulturaren oinarria delako. Gu fede gabeko mundu baten bizi gara, baina gure kulturatik ateratzen zara eta mundu guz-

## **«Erlijioek ez dute ezer txarrik (...) txarra da gizakiak erlijioekin egiten duen erabilera»**

tiak sinesten du zerbaitetan. Nik errespetu handia diet erlijio guztiei, fede guztiei; agian erlijio hitza ez da onena, fama txarra du. Batzuk kontra hitz egiten dute berehala, baina, nik uste dut, jende gehienaren oinarria zerbaitetan sinestea dela. Horrela sortu ziren eta, nire ustez, ez daukate ezer txarrik. Txarra da, gizakiak egiten duen erabilera erlijio horiekin; bo-

terre harremanetarako nola hartzen dituzten, eta batzuk nola abusatzen duten erlijio horiez. Beraz, ordea, bere oinarrian ez dut uste ezer txarra daukanik. Horregatik, asko erakartzen nau, kulturala delako. Kultur munduan ibili naiz erabat, eta orain arte esan ez badut ere, bidaiazteko irizpideetako bat izan da erlijio ezberdinak ezagutzearena. Erlijio asko ezagutu

ditut, eta jada ez zaizkit asko geratzen. Eta erlijio horiek erakusten ditut klasean, argazki bidez, eta konturatzen naiz ikasleei izugarrizko kuriositatea sartzen zaiela. Eta beste irizpideetako bat historia bera da, historia bila joaten naiz, herrietako jendearen istorioez gain, herrialdearen historia ezagutzera. Azken urteetan egin dudana bidaia interesgarrietako bat, Ipar Koreaz gain, Ruandara egin nuen bidaia izan da, han gertatutako hutu-tutsi genozidioa gertuagotik ezagutzeko; eta baita Txernobylera egindakoa ere.



E. MAIZ

## «GURASOEK KONFIANTZA PIXKA BAT GURIEMATEA FALTA DA»

### Lanbidez irakasle zara. Gustuko duzu lana?

Bai, asko gustatzen zait. Historia erakusten dut, eta oso gustura. Hautua baino gehiago kasualitatea izan zen. Go-goan dut, Tolosako ikastolan COU egin nuenean, irakasle bat izan nuela, eta niretzat idolo bat zela. Historiako irakaslea zen, eta berari ere askotan esan diot. Beti esaten nuen: «Bera bezala historia irakatsi nahi dut ikastola honetan». Eta ez da Tolosan izan, baina Zarautzen gertatu da. Lanbide gustukoena, aukeran? Mitifikatzen ditut beste lanbide batzuk, baina hau daukat eta oso gustura nago. Askok gustatzen zait nerabeekin lan egitea. Psikologia ere asko gustatzen zait, eta DBH 3n eta 4an psikologia nerabezaro puru-purua da. Askok esaten didate batxilergoa hobea dela, magistralagoa, eta gehiago irakasten duzula; agian bai. Baina nik psikologia oso gustuko dut eta, bere alde gogorra duen arren, DBH 3n eta 4an gusturago nago.

### Nolakoak dira gaur egungo ikasleak? Asko aldatu da?

Bai, izugarri aldatu da. Ez dakit nola esplikatu. Nik, karre-ran nengoela, irakasle bati galdetzen nion ea nolakoak ziren ikasleak, eta «niños Telecinco» esaten zidan. Bada, orain, okerrago. Dena da mugikorra, sare sozialak,...

Oso gutxi politizatuta daude. Eta agian jendeak esango du: «Politizatuta egon behar dute?». Ba, nik uste dut baietz. Esan nahi du, t politika gure egunerokotasunaren kudeaketa dela. Garrantzitsua da, eta izugarri saiatzen naiz ikasleei hori sartzeko. Ez naiz ari alderdikeriez edo bozkatzera joateaz. Esan nahi dudana da, auzoko farola puskatu bada, udal-letxera joan beharko dela konpontzeko eskatzera; edo es-

kubaloi talderako diru laguntza eskatzen dutenean, politika egiten ari direla erakutsi behar zaiela. Dena da politika, eta axola zaien bakarra kirola da. Garrantzitsua da kirola, baina hori bukatzen da beraien mundua.

### Erraza da historiarekin beraiengana iristea?

Erraza ez da, baina batengana behintzat iristen banaiz, ni kontentu nago. Ez naiz ni aproposena neure buruaz hitz egiteko, eta ez zait asko gustatzen, baina esango nuke gustura daudela. Sirian gerra latz bat egon da, eta hauei ez zaie inporta. Non dagoen badakite, nirekin azterketa egiten dutelako, baina Sirian gertatzen denak guri eragiten digu. Eta ni saiatzen naiz prentsan ateratako hori gelara eramaten. Argazkiak eramaten ditut. Ez dut esan nahi historian izugarriko interesa jartzen dutenik, baina konturatzen dira non dauden eta non bizi diren, eta guztia dela garrantzitsua. Historia ere garrantzitsua dela.

### Ikasleak aldatu diren moduan, irakaskuntza ere aldatuko zen.

Bai, irakaskuntza ere ez dakit aldatu den, edo aldatzen ari den. Orain kompetentzietan oinarritutako eredu dago jorran, eta gauza askorekin oso kritiko izango nintzateke. Egia da, nahiz eta orokorrean berdina izan, eskola bakoitzak bere sistema duela. Hezkuntza aldatu nahi dugu behetik, eta hezkuntza aldatu behar da goitik. Kompetentzia pila bat daude, eta proiektu pila bat, baina, gero, joaten dira batxilergora, eta egin behar dutena selektibitatea da. Zoriturrez, selektibitatea da, ikasi, ikasi eta ikasi.

Orduak sartzea da, buru-belarri ikastea, eta nik ez dut uste horrela ikasi egiten denik. Baina, hori hor dagoen birtartean, guk horri eutsi behar diogu, eta nik nahi dudana da, nire ikasleek hemendik bi urtera selektibitatea gainditzeko. Kontuz, bide hori hartzen dutenen kasuan esan nahi dut, besteekiko errespetu guztiarekin. Nire buru haustek ditut, eta goitik etortzen zaidana pixka bat apurtzen dut eta nire eskua sartzeko.

### Gurasoak ere aldatu dira?

Bai, lehen zaplazteko bat ematen zizuten, eta etxean beste jasotzen zenuen. Metaforikoki ari naiz hitz egiten, eta nik ez dut inoiz zaplaztekorik eman nahi izan. Baina, kontuz, zer egiten edo jartzen diozun ikasle bati: gurasoak berehala etortzen dira. Nik ez dut arazorik izan orain artean, baina aurten etorri zait guraso bat. Bere semeari sinetsi dio dena. Umeak oso babestuta daude, eta ez da beraien errua. Umeak infantilizatu egin ditugu, eta despolitizatu; eta guk egin dugu hori, gurasoak eta gizarteak. Denon errua da. Edo sistemari ez zaio interesatzen 15 urterekin ume politizatu batzuk izatea. Okerrera doa, eta nahi dutena egiten dute.

### Erremediorik bada?

Sistema aldatu behar da, goitik behera. Irakasleei autoritate pixka bat eman behar zaie, autoritate guztia galdu dugu. Gurasoek konfiantza pixka bat guri ematea falta da. Orokorrean ari naiz hizketan, eta nire esperientzia ez da hori, baina inguruan asko ikusten dut. Segituan etortzen dira kexatzera. Astuna egiten da.





2001ean, Astitzzen (Nafarroa), emanaldi batean. UDABERRI DANTZA TALDEA

## «ASKO FORMATU NINTZEN UDABERRIN. DANTZAK ETA ARLO SOZIALAK EGIN ZUTEN, NEURRI HANDI BATEAN, GAUR NAIZENA»

**Esana duzu, zarenaren %90 Udaberrigatik zarela. Zer da Udaberri dantza taldea zuretzat?**

Zaila da ehuneko bat jartzea eta, 90 esan nuenean, horrekin esan nahi nuen, asko. Orain beste bizitza bat daukat, baina egia da nire lagun onenak hor egin ditudala. Ostiralero batera afaltzen dugu, eta noizean behin parranda egiten dugu, eta orain eskopeteroetan aterako gara. Niretzat, nire bizitza izan da. Ez bakarrik lagunak, baita sozialki ere: zenbat ireki ginen, zenbat bidaia egin genituen, euskalduntasuna,... Etxetik ere asko jaso dut, eta nire gurasoak ere hor daude. Baina dantzan egin genituen urte horietan guztietan, uste dut egin genuela lana; euskal kulturaren alde, dantzaren alde eta euskararen alde. Tolosako saltsa guztietan sartzera eramán gintuen. Eta ikustea, orain ere, Udaberrikoak hor daudela, eta ze indartsu, eta ze giroa daukaten, eta gu baino askoz hobeto egiten dituztela gauzak... Bada, horren ardura pixka bat guk ere badaukagu, eta gure aurrekoek ere bai.

**Bertako giroak harrapatu zintuen.**

Ni dantzara noa gustatzen zaidalako, baina, ondo ez banu pasako? Zergatik atera gara bordon dantzariak? Sanjoanetan ondo pasatzen dugulako! Kulturaren, euskararen, Euskal Herriaren alde egin... Lagunekin ondo ez baduzu pasatzen, ez duzu egiten. Dena da bat. Ondo pasatzea eta gozatzea da,

eta mundu honetan, horretarako, lagunak bezalakorik ez dago. Lagunak dira gauzarik aberasgarrienetakoa, eta niri Udaberri eman dit hori. Nire eraikuntza izan zen. 15 urterekin hasi nintzen Udaberrin. Zure nortasuna eraikitzen ari zaren garaian; eta nik, onartu behar dut, nire nortasuna 14-15 urterekin nahiko ahula zela. Sufritu nuen. Asko formatu nintzen Udaberrin. Dantzak eta arlo sozialak egin zuten, neurri handi batean, gaur naizena. Nire gurasoak ere hor daude, eta asko miresten ditut.

**Bidaia izan dira Udaberriren parte. Hortik bidaietara sena?**

Zaila da esatea, baina nik uste dut baietz. Hori, gehi nazioarteko gauzak beti asko interesatu izan zaizkidala. Hasieran Espainia mailan hasi ginen, baina, gero, Praga, Irlanda edo Austria. Guretzat urte guztiko saria izaten zen: hamar egun, lagunekin, gazte-gazte eta, gainera, zertara, eta euskal kultura eta dantzak erakustera. Zoragarria.

**Artxiboan ere lan handia egindako zara, Udaberri dantza taldean.**

Historia zalea izan naiz betidanik, eta hori bai zor diodala nire aitari. Juan Mari Urruzolaren moduko pertsona bat topatu nuen, eta asko ikasi nuen berarekin. Berak sortu zuen ikerketa saila, eta gero ni sartu nintzen. Ni liburuak erosten, artxiboa osatzen, dena gordetzen hasi nintzen. Ikerketa deituz baldin badago; aztertzen hasi ginen dantzak nondik zetozen-eta. «Dantza egiten dugu, baina zergatik egiten dugu, eta zertarako?». Kausak bilatu, aztertu, liburuak irakurri, artxiboren bat edo beste zapaldu, jende helduarekin hitz egin... Hori aurretiko lana da, eta niri gerokoa ere gustatzen zait, hau da, besteei erakusten saiatzea, eta hori guztia egiten zergatik ari garen azaltzea. Saiatzen ginen Juan Mari eta biok, baina ez genuen beti lortzen. «Zer da aureskua? Zer esan nahi du? Zein eboluzio izan du? Zertarako egiten da?». Esanahiak dauzka eta garrantzitsuak dira. Lekukotza da gerorako, eta oroimen historikoa da, guri utzi diguten moduan, guk ere ondorengoei uztea.

**Dantza munduan ere aldaketak emateko borroka egin zenuen eta, orain, belaunaldi berriak lanean ondo ari direla uste duzu.**

Bai. Lagunak gara, baina haserreak ere eduki genituen, eta denborarekin konpontzen genituen. Batzuk berritu egin nahi genuen, aldatu; ezin genuen betiko argazkiarekin geratu. Hori da oinarria, baina goazen gauza berriak egitera. Ikusten genuen berritzen zuten taldeak aurrera egiten zutela eta, kasu horretan, gure taldea oso-oso itxia zen. Ni asko pozten naiz oraingoek lortu dutelako. Ez nuen ofizialki inoiz esan, baina denok txalotu dugu emakumeak bordon dantzan sartzea. Behin ere ez da berandu, baina nik hori komentatu nuen duela urte pila bat. Modan jarri aurretik, nik aspaldi esaten nuen emakumeak dantzan egon behar zutela. Ni bezain jende irekia eta berritu nahi zuena bazen, baina horretan itxi egiten ziren: bordon dantza sakratua zen. Zorionez lortu da, eta zoriontzen ditut, baina lehenago lortu behar genuen. Amorrutxikia daukat oraindik, eta igarri egiten da. Neskak loreontzi moduan sentitzen ziren, eta neurri batean horrela zen. Guk ez genuen lortu baina, zorionez, gazteek lortu dute.



---

# ESKUALDEA

PALADAZ

PALADA

---

Traineru denboraldia hasteko egun gutxiren faltan, eskualdeko arraunlariak buru-belarri ari dira lanean, aurreikuspenak gainditu edota helburuetara ahalik eta gehien hurbiltzeko. Tolosaldeak itsasorik ez duen arren, eskualdeko 41 arraunlarik talde ezberdinetan neurtuko dituzte indarrak, Kantauri itsasoan.



### Irati Saizar Artola

**D**atozen egunetan emango diote hasiera traineru denboraldiari. Gizonezkoetan KAE liga jokatu-ko dutenek, eta emakumezkoetan ETE ligan arituko direnek, bihar izango dute lehen estropada. Eusko Label liga ekainaren 22 eta 23ko asteburuan hasiko da eta, azkenik, Euskotren ligan arituko direnek ekainaren 29 eta 30ean emango diote hasiera denboraldiari.

Aurtengo denboraldian eskualdeko 41 arraunlarik hartuko dute parte, lau ligatan eta hamaika talde ezberdinetan. Horietatik 21, Tolosaldea traineruko kideak dira.

Tolosaldeak, beraz, beste hamar talderekin batera, bihar hasiko du liga, ETE mailan. 11:30ean dute hitzordua, Pasai Donibanen. Eta leku eta ordu berean lehiatuko dira igandean ere.

Tolosaldeako 21 neskez gain, eskualdeko beste bi arraunlari ariko dira bigarren maila horretan, biak tolosarrak, eta bakoitza talde banatan: Itxaso Aranburu Hernanirekin eta Ane Antxustegi San Juango traineruan.

Bigarren mailako mutilek ere bihar bertan hasiko dute liga, horiek ere Pasai Donibanen. 12:00etan ekingo diote lehen estropadari eta, hurrengo egunean, egun eta leku berean izango dute bigarrena. KAE liga horretan, zazpi eskualdeko gizonezko arituko dira lehian. Horietatik hiru, iazko denboraldian igo ziren KAE 1 ligara, Donostiarra taldearekin: Andoni Bartolome, Endika Garcia de Iturraspe eta Nabil Haimane, tolosarrak hirurak.

Gizonezkoen maila nagusian, Eusko Label Ligan, Tolosaldeko zazpi ordezkari ariko dira: Hondarribian, Kaikun, Orion, San Pedron eta, estreinakoz, Zierbenan. Garikoitz Lopez eta Joseba Larrarte billabonatarrek Kaiku utzi eta Zierbenan egingo dute datorren denboraldia. Imanol Olasagasti adunarra, berriz, lehen aldiz arituko da maila gorenean; Hondarribiak fitxatu du. Endika Lopez eta Jon Lizarralde tolosarrek Hondarribiarekin liga irabazteko aukera izango dute, eta Eneko Zabala adunarrak Kaikun jarraituko du. Bestalde, Xabier Zabalak, Joseba Alustizak, Jon Ander Agirrek eta Mikel Lasak ez dute maila gorenean arraun egiten jarraituko.

Emakumezkoen Euskotren Ligako lau traineruak Arraun Lagunak, Donostiarra, Hondarribia eta Orio izango dira, eta azken hiru taldeetan eskualdeko lau ordezkari ariko dira. Donostiarra lehen aldiz lehiatuko da maila nagusian; beraz, aurten, Olatz Lopez tolosarrak eta Naroa Urkola anoetarrak mailarik gorenean egin beharko dute arraun, talde berean jarraitzen baitute. Nerea Perez patroil tolosarra Hondarribiako traineruko patroil arituko da, iaz, San Juanekin liga eta Kontxa irabazi ondoren. Azkenik, Oihane Iraola tolosarrak Orion jarraituko du.

Iaz Urdaibai eta San Juan izan ziren liga nagusietako txapeldunak, eta eskualdeko Nerea Perezek, Ioana Alijostesek eta Irati Larrañagak izan zuten Euskotren bandera astintzeko ohorea. Irailera bitarte, ikusi egin behar nork lortzen dituen emaitza hoberenak, eta amaieran jakingo da bandera astintzen eskualdekorik baden.



## EUSKO LABEL LIGA



**ENDIKA LOPEZ**  
TOLOSA, 1991  
HONDARRIBIA



**JON LIZARRALDE**  
TOLOSA, 1982  
HONDARRIBIA



**ENEKO ZABALA**  
ADUNA, 1988  
KAIKU



**UGAITZ MENDIZABALI**  
IRURA, 1991  
ORIO



**GARIKOTZ LOPETEGUI**  
VILLABONA, 1980  
ZIERBENA



**JOSEBA LARRARTE**  
VILLABONA, 1978  
ZIERBENA



**IMANOL OLASAGASTI**  
ADUNA, 2000  
SAN PEDRO


## KAE1 LIGA



**ION JAUREGI**  
BERROBI, 24 URTE  
ZARAUTZ



**XABIER ORMAZABAL**  
TOLOSA, 22 URTE  
ZARAUTZ



**MARTIN REKONDO**  
LARRAUL, 22 URTE  
ZARAUTZ




**DANIEL ARIZTIMUÑO**  
TOLOSA, 25 URTE  
ZUMAIA



**ANDONI BARTOLOME**  
TOLOSA, 19 URTE  
DONOSTIARRA



**ENDIKA G. DE  
ITURRASPE**  
TOLOSA, 21 URTE  
DONOSTIARRA



**NABIL HAIMANE**  
TOLOSA, 22 URTE  
DONOSTIARRA

## ETELIGA

### TOLOSALDEA TRAINERUA ETELIGA

**Izaro Arregi.** Tolosa, 16 urte.  
**Itsaso Aizpurua.** Zizurkil, 18 urte.  
**Naroa Becerril.** Tolosa, 17 urte.  
**Ane Egues.** Elduain, 17 urte.  
**Laiene Gil.** Tolosa, 17 urte.  
**Iratí Hernandez.** Tolosa, 17 urte.  
**Laiene Izagirre.** Berrobi, 15 urte.  
**Janire Izagirre.** Tolosa, 17 urte.  
**Naroa Leonet.** Tolosa, 19 urte.  
**Iratí Lizeaga.** Tolosa, 17 urte.  
**Malen Oiarzabal.** Villabona, 19 urte.  
**Arene Portularrunbe.** Aia, 16 urte.  
**Marta Fidel.** Tolosa, 16 urte.  
**Ane Sanchez.** Anoeta, 20 urte.  
**Izaskun Sarasola.** Asteasu, 18 urte.  
**Aiora Sorozabal.** Oresa, 17 urte.  
**Nagore Urdapilleta.** Bidania, 18 urte.  
**Mireia Vicente.** Anoeta, 20 urte.  
**Eider Zubeldia.** Amezketa, 17 urte.  
**Andrea Zumeta.** Tolosa, 20 urte.  
**Maider Zumeta.** Ibarra, 21 urte.  
**Uxue Zuriarrain.** Amezketa, 17 urte.  
**Entrenatzailea:** Patxi Frances

## EUSKOTREN LIGA



**NEREA PEREZ**  
TOLOSA, 1997  
HONDARRIBIA



**OHIANE IRAOLA**  
TOLOSA, 1992  
ORIO

## ETELIGA



**ITXASO ARANBURU**  
TOLOSA, 1988  
HERNANI



**ANE ANTXUSTEGIARTE**  
TOLOSA, 2001  
SAN JUAN



**OLATZ LOPEZ**  
TOLOSA, 1995  
DONOSTIARRA



**NAROA URKOLA**  
ANOETA, 1991  
DONOSTIARRA



Facebook, Twitter, Instagram nahiz LinkedIn egungo gizartearen eguneroko ogia dira. ATARIA

# 'Like'n menpe bizi diren gazteak

**Z**alantzarik ez dago, teknologia berriek konektatuago bizitzeko ekarri dutela. Gaur egun gizarteko zati handi bat sare sozialetan mugitzen gara: Facebook, Instagram, Twitter, LinkedIn, ...

Sare sozialak erabiltzeko hainbat modu daude. Badaude modu onak, non publikazioak egiten dituen pertsonak publikazioa helburu batekin erabiltzen duen, adibidez, bere negozioa edo lan profesionala aurkezteko, artikulu interesgarriak konpartitzeko: helburu zehatza dute, eta informazio pertsonala eta iritzia pertsonalak ez dira argitzen.

Tamalez, asko dira sare sozialak beraien bizitza pribatua argitaratzeko erabiltzen dutenak, eta horren araber bere autoestimua eraikitzen dute. Pertsona horiek beren argazki pertsonalak igotzen dituzte sarera, gazte askoren kasuan probokatiboki dira, eta besteen onarpenaren zain egoten dira,

*like*-n zain. Horrek antsietate egoerak bultzatzen dizkie, eta sarri, ikasten aritu beharrean, mugikorrari adi daude, ea noiz eta nork emango dion *like*, beren argitalpen pertsonalari. Pentsa dezakegu zein arriskutsua den menpekotasun hori, zeren ez dakigu zein dagoen argazkiaren atzean, eta zein erabilpen desegoki egin dezakeen. Horren harira, ziber akosoak ere bizi-tzen ari dira, eta sareak eskaintzen duen anonimotasunaz baliatuta, gazte zein pertsona bat suntsitzera dihoaz ekintza batzuk.



**IDOIA APAOLAZA**  
PSIKOPEDAGOGOA ETA  
EKIMENA ZENTROKO  
ZUZENDARIA

Abiapuntu honetatik, garrantzitsua da heziketa egitea, gaia lantzea familian. Sare sozialak hor daude, eta onak dira erabiltzen jakinez gero. Beraz, hitz egin behar da erabilpen egokiaz.

## Erabilera egokia

Argazkiak igo aurretik, pentsatu zer argazki diren: gorpuzta erakusten duten argazkiak, adin txi-

kikoen argazkiak, informazio intimoa eskaintzen duten argazkiak. Horrelakoak baldin badira, ez igo.

Sare sozialetako informazioa mundu guztira iristen da: nahiz eta hasiera batean argazki edota informazio inozoa izan, pentsa zer eragin izan dezakeen, ikusten ari denarengan. Lan el-karrizketa batean, adibidez, sareak informazioa eskain diezaioke kontratatzaileari. Beraz, hobe da irudi pertsonalak ez igotzea, eta kritika egin nahi baldin badugu profil faltsua sortzea.

Sare sozialei beldurra kendu: informatu zein saretan ibiltzen diren seme-alabak, eta hitz egin horien inguruan.

**Tamalez, asko dira sare sozialak beraien bizitza pribatua argitaratzeko erabiltzen dutenak**

**Hobe da irudi pertsonalak ez igotzea, eta kritika egin nahi baldin badugu profil faltsua sortzea**

Eredu izan: Heldu gisa, igotzen ditugun gure eta gure familiaren argazkiak zein informazioa zainduko dugu, seme-alabek ere gauza bera egin dezaten.

Sare sozialak mundura irekitako leiho birtual eta zabalak dira, beraz, etekina aterako diegu, modu egokian, eta argitaratzen dugun informazio zein argazkiak zainduz.

# Agenda

## OSTIRALA EKAINAK 14

### ALEGIA

**22:00.** Udako zinema, Erbeta pilotalekuan: *Dantza*.

### ANOETA

**22:30.** Anitz dantza taldearen emanaldia, kiroldegian: *Saketik errebotera* emanaldia eskainiko du Anitzek, Loatzoko musikarien laguntzaz.

### TOLOSA

**17:00.** Ekaina eta uztaila bitarteko zine bonu berrien salmenta, Leidor aretoko leihatilan.

**18:00.** Ernai gazte antolakundeak deitutako bizikleta martxa, *Bizitzak biziarazile* lelopean. Tolosa-Anoeta-Villabona.



## MENDI KORRIKALIARIEN EZINBESTEKO HITZORDUA

Bosgarrenez antolatuko dute, igandean, T3T lasterketa eta, azken urteetan bezala, T2Tk ere jendetza hartuko du. Proba mendi lasterketen egutegian egonkortu da, eta horren erakusle da gazte korrikalarien proba estreinakoz antolatu izana. **ATARIA**

26

## LARUNBATA EKAINAK 15

### AMASA-VILLABONA

#### VILLABONAKO EMAKUMEN I. TOPAKETAK

- 11:30.** Topaketari hasiera emango zaio Errebote plazan. Aurkezpenak eta prestaketa egingo dituzte.
- 12:00.** Errebote plazan tailerrak egingo dira: irakurketa feminista, kartelak, henna tailerra eta zapien erabilera ezberdinak.
- 14:00.** Berdura plazan bazkaria: lurralde ezberdinetako emakumeen arteko janari dastatzea.
- 16:30.** Emakumeen dantzaldi pribatua Aljibean.
- 19:00.** Afari-hitzaldi bat eta bi kontzertu, Villabonako gaztetxean: Mara bakarlarria eta Holy Nuns taldea. Jarraian. Bilbotik etorririko da Mar La Txika de la Cerveza. Bere garagar doak aurkeztuko ditu. Afaria pintxo eta mokadu beganoz lagunduta, eta emakumeek garagar doaren munduan bizi duten egoerari buruzko solasaldia.

### ANOETA

#### KUADRILLEN EGUNA

**09:30.** Haurren krosa, Ikastolak eta Anoekate Kirol Taldeak (AKT) antolatuturik.

- 10:15.** Txirrindulari lasterketa, Mikel Olarzal eta Andoni Urkolaren omenez, Oriako Txirrindularitza Eskolak antolatuta.
- 10:45.** Helduen krosa, Ivan Torresen V. oroimenezkoa.
- 12:00.** Kuadrillen eguneko txupinazioa eta poteoa Zütitik elektrotxarngak alaiturik.
- 14:00.** Kuadrillen bazkaria frontoian.
- 16:30.** Kuadrillen arteko jokoak plazan.
- 19:00.** Kuadrillen poteoa, Batumore Tolosako batukada feministak alaituta.
- 21:00.** Kuadrillen afaria frontoian.
- 23:00.** Iratzar erromeria taldea plazan.

### ALTZO

**19:30.** Poesia musikatua Batzarremuño kulturgunean, Loatzoko musika eskolaren eskutik. Garazi Otegi (hizlaria), Oihane Artola (biolina) eta Maria Urroz (pianoa) ariko dira.

### IBARRA

**16:00.** Ibarako V. Mus Txapelketa Herrikoia, Danon Txokoa tabernan.

### TOLOSA

**16:30.** Birziklatu, bigarren eskuko eta truke azoka egingo dute, hileroko moduan, Ana Yurd elkarteak antolatuta. Hilabete honetan Zerkausion izango da.

**18:00.** Kultur etxeko dantza ikasleen emanaldia, Leidorren: *Des-jabetzea*.

### SANJOANAK 2019

- 09:00-14:00.** Gainditzen elkartearen padel txapelketa Berazubi estadioan.
- 09:00-19:00.** Urtzi memoriala futbol txapelketa (Tolosa CF) Berazubi estadioan.
- 09:00.** Eskubaloi txapelketa (Tolosa CF Eskubaloia) Usabalen.
- 09:00.** 3x3 saskibaloi txapelketa egun osoan. Goizez Alondetia plazan, eta arratsaldean San Frantzisko pasealekuan.
- 12:00.** Targazki elkartearen erakusketaren inaugurazioa Aranburu jauregian.
- 17:00.** Haur ikuskizuna Alondetia: Kiki, Koko eta Moko pailazoak eta puzgarriak.
- 17:30.** Kirol giro: piraguak eta paddel surfa.
- 19:00.** Berdura plazan San Joan Sagardo Txapelketa. Bitartean bakailaoa, sagardotan egositako txorizoa doan dastatzeko aukera. Antolatzailea: Batasuna elkarte.

## IGANDEA EKAINAK 16

### AMASA-VILLABONA

**11:00.** Elkartasun desafioa. Lasto altxatzen, trontzan, korrika, ingudearekin, segan eta sokatiran aritu beharko dute bi taldeek.



Talde gorria: – Aitor San Sebastian (lastoa)–  
Alatzne Etxaburu eta Iñaki Esnal  
(trontza)– Aitor Goenaga (korrika)– Pello  
Argaia (ingudea)– Mikel Alkorta (sega)  
Talde berdea: – Lander Otermin (lastoa)–  
Gurutze Astiasaran eta Mikel Arretxe  
(trontza)– Ander Etxeberria (korrika)–  
Arkaitz Arretxe (ingudea)– Joseba  
Astiasaran (sega) Ondoren, bailarako  
presoen senideek omenaldia egingo diete.

## ANOETA

### ANOETAKO FESTAK 2019

**12:00.** Hainbat jatorritako mokadutxoan dastatzea, musika eta dantzaz alaiturik: Kawadeni ikuskizuna (djembe, perkusioa, dantza, dum dum).

**18:00.** Bertso emanaldia elizan: Onintza Enbeita, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga, Eli Pagola eta Aitor Mendiluze. Laguntzailea: Orbinox.

**Jarraian.** Lau eme dantza ikuskizuna plazan. Ondoren, taloak dastatzeko aukera.

## IKAZTEGIETA

**10:45.** Kutturru ingurua garbitzeko auzolanerako, Zubiaurreko aparkalekuan hitzordua egingo dute.

## TOLOSA

**09:00.** T3T eta T2T mendi lasterketen hasiera, Trianguloa plazatik abiatuta.

**13:00.** lurreamendi egoitzako festak, bazkari berezia.

**18:30.** Kontzertua 3 tabernan: Malentxo eta Maitane akustikoan.

### SANJOANAK 2019

**10:00.** Tolosa CF futbol eskolaren amaiera festa, Usabalgo futbol zelaian.

**11:00.** Haurrentzat jolas parkea: puzgarriak, zezen mekanikoa, jokoak,... Alondegia plazan.

**11:00.** Zaldi ikuskizuna (Miracampos Hipika) zezen plazan.

**16:00.** Haurrentzat jolas parkea: puzgarriak, zezen mekanikoa, jokoak,... Alondegia plazan.

**18:30.** Herri kirolen erakustaldia egingo dute, Trianguloa plazan. Iker Vicente, Ugaitz Mugerza, Mikel Lopetegui Urrea, Inar Urruzuno, Karmele Gisasola eta Irati Astondoa.

**20:00.** Plaza Berrian kontzertua: Olatz Salvador.

## ASTELEHENA EKAINAK 17

### TOLOSA

**10:30.** lurreamendi egoitzako festak, meza 11:00, txupinazoa; 11:30, bingoa kartekin, eta Garagune Goienetxe Fundazioko kideekin ko kideekin batera; 16:00, jokoak sari banaketarekin.

**18:00–20:30.** Hileroko odol ematea izango da Tolosako kultur etxean. Txandarako zenbakiak kultur etxeko sarreran uzten dituzte, egunean bertan, 17:30ean.

## ERAKUSKETAK

### ANDONIROBLESENERAKUSKETA

**Zizurkil.** Ekainaren 16ra bitarte ikusgai, Atxulondon.

### SPEELTHEATER HOLLAND

**Tolosa.** Txotxongilo konpainiaren erakusketa ikusgai, Topic -en, irailaren 15era bitarte.

### ALBERTO LETAMENDI

**Tolosa.** 3 tabernan, ekaina osoan ikusgai: *Loturak vs. lokarriak*.

### UDANE JUARISTI

**Amasa-Villabona.** Kaori faktoria dendan jarri ditu artista azkoitiarrak bere lanak, uztaila bukatu bitarte.

### BLOKARTE ESKOLA

**Tolosa.** BLOK Arte Eskolako ikasleen lan aukeraketa, Topic-eko Anbiguan. Bihar izango da azken eguna.

### MUNSTROAK

**Zizurkil.** 70 familia eta 122 haur aritu dira. Plazida Otañon ikusgai, hilaren 29ra bitarte.

### TOLOSA HERRIA

**Tolosa.** Targazki elkarteak antolatuta, Tolosa Herria 2019 argazki lehiaketako parte hartzaileen erakusketa ikusgai izango da, bihar hasi eta ekainaren 30era bitarte, Kasinoan.

## ZINEMA

### 'ROCKETMAN'

Igandea (19:30/22:00)

Astelehena (20:30).

**Leidor, Tolosa.**



### 'LA PORTUGUESA'

Ostirala (Zine foruma)

, 19:15 / 21:45).

**Leidor, Tolosa.**



Kuadrillen eguna izango dute, bihar, Anoetako jaietan. M. IRAOLA



ANJEL MARI PEÑAGARIKANO

*Ama itsasoa zerala baina  
aldiz zenbaten hilobi?  
Zergatik zure uhin ederrak  
bilakatu malko lodi?  
Danok miresten zaituguna ta  
begira gauzkazun hori...  
Zergatik hori egin diezu  
Josetxo eta Pellori?*



## Doinua

Oraindainoko  
iñularretan maite  
nuen itsasoa...

## Askatasun kolektiboak eta pertsonalak

**O**rain dela milaka urte gutxi batzuk, lehen zibilizazioak osatu ahala, Grezian, Erroman edo Egipton, hastapenetako estatu egiturak antolatzen hasi ziren, beste herrikideen gaineratik gartzaren eta aberasten ari ziren giza taldeen interesak defendatze aldera.

Maneiatzen zutena gutxi ez, eta, ezin asea, estatu egituren indarra baliatuta, mundu zabalean hedatzeari ekin zioten jo eta su, bidean topatzen zituzten herri, talde eta erlijio ezberdinak bereganatuz edo suntsituz, garaian garaiko testuinguaren arabera.

Geroztik, tokian tokiko botere harremanak kudeatzeko moduak bere-suak izan dira han edo hemen, zapal-

du eta zapaltzailen arteko indar harremanek markatutakoak inondik. Eta hortaz, giza talde zabalak, herri, nazio, hizkuntza, erlijio, sexu, arraza, klase ezberdinetakoak, jazarriak dira munduko edozein bazterretan.

Azpian denak, sentitzen denak, behin indarrak hartuta, askatzea du amets eta asmo. Molde batean edo bestean, bakarka edo taldean, kontzienteki edo espontaneoki, altxatuko du burua; moztua, kolpatua, gerta dakiokkeenaren jakitun.

Gipuzkoa omen da, estatu osoan, langileentzako lan hitzarmen hobere-nak dituen herrialdea.

ETBko erreportajearen ikusi berri ditugu Eli, Jon, Jokin... Trantsizio garaia- ren bueltan, langileen aldeko borroketan buru-belarri aritu, eta Tolosako kuarteleko atxiloaldian jasandako ondorioak kontatzen. Enpresariak kontratuak eskuz egiten zituzten garaietan, alegia. Ez ote du zerikusirik haiek bultzatu zituzten greba eta borrokek, ondorengo langileen bizi baldintzetan? Edo eta, oinarri haietatik sortutako euskal gehiengo sindikalaren jarduerak?

Egun, Tolosaldean, D eredua da hezkuntza aukera bakarra. Zenbat erregelak eta hurritz-makilak kolpatu

zituzten euskal ikasleen hatzamar eta ipurmasailak, ama hizkuntza erabiltzearren?

Berriki Ibarran omenaldia jaso du- ten Eduardo Osak, Juli Alijostesek eta Inaxio Aranaldek, ez ote dute lagundu egungo askatasun mailak -mugatuak izanagatik- erdiesten?

Zenbat zigor eta jazarpen dakartza unibertsala den askatasunaren ideia- ren xerkak?

Bizi garen tokian bizi gara, Euskal Herrian. Zapalkuntza anitzen baitan. Hemen bi eta hiru aldiz pentsatzen du norbanakoak, askatasun kolektibo- ren mesedetan utzi beharko duen pusketaz.

Indarrak dirauen arte- an, askatasun pertsonala- ren zati bat, kolektibo- ren mesedetan jartzeko kontratua egina dut aspaldi, neure buruarekin. Klausula guztiak ez ditut nik sinatzen, badakit. Pa- perein idatzita dagoen guztia ez du errespetatzen parekoak, badakigu. Baina, taldearen mesede- tan gal dezakedan aska-

tasun pertsonalaren zatia, geldirik egon eta ez galduagatik, kontzientzia txarrak zulatutako barrena baino txikiagoa da oraino. Gutxienez, gatibu ditugun herrikideak etxeratu arte bai, behintzat.

Helburua lortuko bagenu, beste kontratu pertsonal bat sinatzeko garaia iritsiko litzateke niretzat. Hori ere, momentuko indar (pertsonala- ren), behar (kolektiboan) eta estatu egituren (mehatxuen) oreka harreman- en arabera izango da normalean.



ION MINTEGIAGA  
LANGILEA

**Indarrak dirauen artean, askatasun pertsonalaren zati bat, kolektiboaren mesedetan jartzeko kontratua egina dut aspaldi, neure buruarekin.**

## Denbora eta gu

POEMA KARLOS LINAZASORO



*Denbora badoa, eta gu berarekin.  
Eskutik garamatza, leun, bigun,  
atzo, gaur, etzi, bihar, herenegun,  
aspaldi zaharreko haizeteekin.*

*Alferrik da berari aurre egitea,  
inoiz ez du gudu bakar bat galdu,  
ez bide daki eskuzabala izaten.*

*Denbora lagun dugu, eta arerio;  
eman egiten du, eta gero kendu,  
bere baitan gara bizi eta zendu,  
bera da izaki ororen misterio.*

*Amets gailen: denbora atzematea!  
Betikotz iraun, orduak ugaldtu,  
noiztik gaude mirari horri itxaroten?*

## Rojo

kusi dudan azken antzerkiak, gus-  
tuko ditudan bi osagai uztartzen  
ditu: Echanove aktorearen lana  
(Gomez lagun) eta arteari buruzko  
hausnarketa. Antzezlanak Mark Roth-  
ko pintoreak New Yorke-  
ko Four Seasons jatetxe  
elitista eta ospetsurako  
egin zituen lanak, eta  
haiek sustatutako buruta-  
zioak ditu oinarri (John  
Loganen gidoiaren arabe-  
ra).

Jatetxe famatu hori  
Mies van der Rohe arki-  
tekto alemaniarrek  
1958an burututako Sea-

gram eraikinaren behe oinean kokatu-  
ta dago. Eraikina amaituta zegoela,  
bertan goi-mailako jatetxe dotore bat  
jartzea erabaki zuten eta Mark Rothko  
pintoreari hura apaintzeko hormakoak  
enkargatu zizkieten. Lana jada hasia  
zuela, Europara bidai bat egin eta,  
itzultzean, bere lanak ikusgai izango zi-  
tuen jatexera afaltzera joan omen zen.  
Ondoren erabaki zuen, bere koadroak  
bertan inoiz ez zituela zintzilikatuko.

Jatetxerako, 30 koadroz osatutako  
sail bat marraztu zuen, bertan zazpi  
besterik sartuko ez liratekeen arren.



**MIREIA ROCA ZEBERIO**  
ARKITEKTOA

Gaur egun, mundu osoan zehar saka-  
banatuta daude: New Yorken, Was-  
hingtonen eta Japonian, besteak beste.

Antzezlanak gertakizun horren ga-  
koak trebetasunez iradokitzen ditu: ar-  
tista, artelana eta ikuslea-  
ren arteko erlazio gazi-go-  
zoa, artea sortzeak  
artistarengan eragindako  
sufrimendua, eta artistak  
duen gizartearen onspen  
beharra.

Bereziki gustuko dut ar-  
tista hau, artea bere osota-  
sunean sentitzera behar-  
tzen gaituelako. Koadro fi-  
guratiiboak

–irudiak dituztenak– askotan bere  
analisi egitera bultzatzen gaituzte: ar-  
datzen kokapena, irudiaren garrantzia,  
koloreen kromatismoak koadroaren  
orekan duen ardura...

Baina Rothkoren koadroak hain dira  
abstraktuak, azkenean gordinak eta  
bortitzak suertatzen direla. Ez dute  
heldulekurik eta, beraz, ezagutza ez da  
hura ulertzeko baliabide egokia. Horre-  
gatik, arteaz ezer ez dakienarentzat, in-  
teresik ez duenarentzat, edo ulertzen  
ez dutela esaten dutenentzat ere era-  
kargarriak dira.

Eta horrek liluratzen nau, Rothko-  
ren arteak –eta orokorrean abstrakzio-  
ak– guztiak berdintzen gaituelako, au-  
rreiritziek lekurik ez dutelako, eta  
Rothkoren koadro batek, behin eta be-  
rriro, artea zer den galdegiteko gaitasu-  
na duelako.

Inongo erreferentziarik gabe, gure  
sentimenduak astintzen dituzte, beste  
guztia alboratuz.

**Horrek liluratzen nau,  
Rothkoren arteak  
–eta orokorrean  
abstrakzioak– guztiak  
berdintzen gaituelako,  
aurreiritziek lekurik ez  
dutelako, eta Rothkoren  
koadro batek, behin eta  
berriro, artea zer den  
galdegiteko gaitasuna  
duelako.**



## EGURALDIA



### GAUR

Giro motela. Egun osoan hodeiak nagusi, eta euri pixka bat utziko digute; orokorrean, euri langar modura. Ekaitzetarako aukera txikia denez, botatzen duena euri txikitan botako du.

Haizeak ipar-ukitua izango du eta termometroa zertxobait beherago kokatuko da: eguneko erdiko orduetan 19-21 gradu bitartean joaz goia.



**IKER  
IBARLUZEA**  
EGURALDI  
MUTILA

### BIHAR

Hobetzeko joera hartuko du eguraldiak. Goizean,

eta eguerdira bitarte, oraindik zeruan hodei asko ikusiko dugu, eta egunsentian hodei hauek euri pixka bat utziko digute zaparrada ahul modura. Goizean bertan, ordea, erabat ateri geratuko da. Eguerditik aurrera, ipar-ekialdeko haizearen laguntzaz, ostarte gero eta zabalagoak irekiko dira, egun amaieran zerua ia erabat garbi geratuz. Termometroak balio atseginetan jarraituko du, baina berorik gabe, eguneko erdiko orduetan 20-22 gradutan joaz goia.

### ETZI

Giro eguzkitsua eta epela. Ipar-ekialdeko haizearen eta erdi-mailako geruzetan sartuko den aire epelaren eraginez, termometroak gorakada polita izango du, eguneko erdiko orduetan 23-25 graduan joaz goia. Zeruari dago-kionez, egun osoan goi-hodei batzuk ikusiko ditugu, baina ez diote eguzkiari trabarik egingo, eta arratsaldean, bero-hodeiren bat edo beste garatu arren, ez du ekaitzetara joko, eta egun osoz eguraldi ederraz gozatu ahal izango da.

OSTIRALA  
14



IGANDEA  
16



LARUNBATA  
15



ASTELEHENA  
17



## IRAGARKI LABURRAK



### LANESKAINTZAK

**Zaintzailea.** Tolosan, abuztuko ordezkapenerako, goizez, pertsona bat behar da, adineko bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Euskaraz jakiteak lehentasuna izango du. Informazio gehiagorako, deitu, 17:00 etatik aurrera, 680 45 5167 telefonora (Miren).

### LANBILA

**Zaintzailea.** Uztailean umeak zaintzeko prest dagoen 18 urteko neska bat naiz. Interesatuak telefono zenbaki honetara deitu: 66136 94 28.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi [ataria@ataria.eus](mailto:ataria@ataria.eus) helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

## FARMAZIAK



### EKAINAK 14, OSTIRALA

IBARRA

**Egunekoa.** Edurne Mugica Martinez. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

### EKAINAK 15, LARUNBATA

IBARRA

**Egunekoa.** Edurne Mugica Martinez. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

### EKAINAK 16, IGANDEA

TOLOSA

**Egunekoa.** Jesus M<sup>o</sup> Echeveste Elosegui. Gernikako Arbolaren lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.

### EKAINAK 17, ASTELEHENA

TOLOSA

**Egunekoa.** Ignacio Olarreaga Aramburu. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 0128.

**EGUNERO GAUEKO  
GUARDIAKO FARMAZIA:**  
TOLOSA • L. Azpiroz Galartza.

Amarotz auzoa, 9.  
Tel.: 943 67 5118.

## ATARIA IRRATIA



### OSTIRALA

**09:00. Pasahitza.** Iker Ibarluzearen eskutik eguraldia, eskualdeko berriak, Tolomendiren atala eta Ainhoa Elizondo kale kantoitik.

**11:00. Hamaiketakoa** Tolosako berriak.

**16:00. Zebrabidea** magazina.

**18:00.** Goizeko saioen onena.

**20:00. Mingaina Txulora.** Erotikari buruzko saioa, Jon Imanol Etxaberekin.

### LARUNBATA

**10:00.** Trikitia.

**12:00. Hauspo artean.** Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin, trikitiari buruzko saioa.

**14:00. (H)ari naizela.** Bertsolaritzari buruzko saioa Imanol Artola Felix-ekin.

**16:00. Entzuteko jaiok.** Musika saioa.

**17:00. Kokondo.** Musika saioa Oskar Tenarekin.

**18:00. Entzuteko jaiok.** Musika saioa.

### IGANDEA

**10:00.** Asteak utzitako onena.

**16:00. Entzuteko jaiok.** Musika saioa.

**18:00. Entzuteko jaiok.** Musika saioa.

### ASTELEHENA

**09:00. Pasahitza** magazina. Iker

Ibarluzearen eguraldi iragarpena, asteburuak emandakoa, bidaiarien tarte eta Aitor Mendiluze kale kantoitik.

**11:00. Hamaiketakoa** Alegialdeko berriak.

**16:00. Zebrabidea** magazina.

**18:00.** Goizeko saioen onena.

**20:00. Hauspo artean.** Trikiti saioa.

107.6 fm

www.ataria.eus

## 28 KANALA



### OSTIRALA

**13:30.** Gaurkoan Tolosaldekit

**12:30.** Kantaurifest, arropa jasangarrien moda desfilea

**17:30.** Gaurkoan Tolosaldekit

**21:30.** Gaurkoan Tolosaldekit

**22:00.** Onein

**22:30.** 1,2,3 Hemen da Miru

**23:30.** Gaurkoan Tolosaldekit



## saridunak

Atarikideentzat  
lau sarrera ditugu  
**'Musua' Pirritx, Porrotx  
eta Marimotots**

bi sarrera bakoitz zozketan

- Maider Gallurralde (Anoeta)
- Joxe Ramon Zubeldia (Baliarrain)

Ekainaren 18, asteartea 18:30 •  
Andoain, Basterao kulturgunea.

Ataria jarriko da harremanetan

**CASA-ARREGUI®**  
especialistas en flor desde 1923

Larramendi, 3  
TOLOSA

**SAN JOAN FESTETAN BETI ZUREKIN**

- Complementos decoración interior
- Composiciones florales funerarias
- Diseño y decoración de jardines
- Mobiliario de terraza y jardín
- Ramos de novia, bodas y celebraciones
- Servicios privados a tanatorios

Tel. 943 675 703 - Tel. Guardia. 686 326 942 - info@casa-arregui.com - www.casa-arregui.com



## IBARRAN EROSTEAK SARIA DAUKA

Kanpainan atxikitutako dendetan  
gastatzeko 100€ko hamar sari



ZURE UKIPEN-LENTEAK  
EROSITA,  
ERAMAN EZAZU

**Wildgo**

BETAURREKOA  
OPARI

Gure betaurreko guztiak  
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.C.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren  
ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza  
batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23  
Tel.: 943 69 84 70  
TOLOSA

**MULTIOPTICAS**  
lehen a zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com





**PEUGEOT**  
**CARZA GIPUZKOA**



**NOVOCAR**



**Jeep**



**BERRI MOTOR**

**CARZA**  
**OCASIÓN**

**INSTALAZIO BERRIAK,  
ZURE AMETSEN HAIN URBIL  
EZ ZARA INOIZ EGON**

*Instalakuntza berriak*

*Errepide Nazionalea 1, Km 416*

*Iñautsi Industrialdean egongo dira.*